



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

KULTURARTEKOTASUNA ETA ETNOZENTRISMOA LEHEN HEZKUNTZAN: IKUSIZKO CURRÍCULUM EZKUTUAREN ERAGINA HAURREN IRUDITEGIAN.

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Altube Iturricastillo, Janire.

ZUZENDARIA: Gutierrez Ajamil, Estibaliz.

2023ko ekaina

LABURPENA

Ikerketa honen helburua Lehen Hezkuntzako (LH) material didaktikoen ilustrazioek pentsamendu etnozentrkoa edo kulturartekotasuna sustatzen duten aztertzea da, hauek LHko ikasleengan izan dezaketen eragina ikertuz. Gaiari kokatzeko, lehenik eta behin eskolako ikusizko curriculum ezkutua nola adierazten den eta ikusizko kultura haurren iruditegian duen eraginaren berrikuspen bibliografikoa egin da. Atal empirikoak bi zati ditu eta biak Gasteizko Aranbizkarra ikas komunitateko lehen mailako gela batean burutu dira. Alde batetik, ikasgelan topatu diren irudi didaktikoak identifikatu eta aztertu dira Ikusizko Curriculum Ezkutuariaren analisia egiteko protokolo bat jarraituz. Bestalde, galdetegi baten bitartez, ikasleen iruditegia aztertu da, haurren arrazakeria eta klase sozialen aurreiritziak identifikatzeko asmoz. Emaitzek erakusten dute aztertutako ikusizko curriculum ezkutuan pertsonai zurien ehunekoa erdia baino handiagoa dela, hau da, ikasleek eskolan jasotzen dituzten erreferenteen %74,1a zuriak dira. Era berean, ikasleen erantzunetan arraza zuria arrakastarekin eta ona denarekin lotzen dute. Hori horrela, ondorioztatu daiteke haurrek eskolatik eta ikus-entzunezkoetatik jasotzen dituzten mezuek estereotipoz josita daudela, baita kultura zuri-etnozentrakoa bultzatzen dutela ere, erreferente hauek ikasleen iruditegian eragin zuzena izanik.

Hitz gakoak: Iruditegia, ikusizko curriculum ezkutua, estereotipoak, ikusizko kultura, arrazakeria.

RESUMEN

El objetivo de esta investigación es analizar si las ilustraciones de materiales didácticos de Educación Primaria (EP) fomentan el pensamiento etnocéntrico o la interculturalidad, investigando su posible impacto en el alumnado de EP. Para situar el tema, en primer lugar se ha realizado una revisión bibliográfica de cómo se expone el currículo visual oculto de la escuela y sobre la influencia de la cultura visual en el imaginario infantil. El apartado empírico consta de dos partes, ambas realizadas en un aula de primer nivel de la escuela Aranbizkarra de Vitoria-Gasteiz. Por un lado, se han identificado y analizado las imágenes didácticas encontradas en el aula siguiendo un protocolo de análisis del Currículo Visual Oculto. Por otro lado, a través de un cuestionario se ha analizado el imaginario del alumnado con el fin de identificar el racismo en la infancia y los prejuicios de las clases sociales. Los resultados muestran que en el currículo visual oculto analizado, el porcentaje de personajes blancos supera la mitad, es decir, el 74,1% de los referentes que reciben los alumnos en la escuela son blancos. Asimismo, en las respuestas los alumnos relacionan la raza blanca con el éxito y lo bueno. Así, se puede concluir que los mensajes que reciben los

niños y niñas desde la escuela y medios audiovisuales están cargados de estereotipos, así como que favorecen la cultura blanca-etnocentrista, con estos referentes influyendo directamente en el imaginario del alumnado.

Palabras clave: Imaginario, curriculum oculto visual, estereotipos, cultura visual, racismo.

ABSTRACT

The aim of this study is to analyze if the illustrations of Primary Education (PE) teaching materials encourage ethnocentric thought or multiculturalism, and see what their impact on PE students is. To start with, a bibliography revision of how the school Hidden Visual Curriculum is shown and also, the influence of visual culture in the infant imaginary. The empirical section consists of two parts, both of which have been carried out in a first-class classroom in the Aranbizkarra learning community in Vitoria-Gasteiz. On the one hand, teaching images found in school have been identified and analyzed, following the analysis protocol of the Hidden Visual Curriculum. On the other hand, by answering a questionnaire, students' imaginary has been analyzed. The aim was to identify children's racism and prejudices of social classes. The results show that the percentage of white characters in the hidden visual curriculum studied is more than half, that is, 74.1% of the references that students receive at school are white. Children relate white race with goodness and success. Therefore, we can conclude that the messages that children receive from school and audiovisual media are full of stereotypes, as well as that they promote a white-ethnocentric culture, having these references a direct effect on the imaginary of the students.

Keywords: Imaginary, hidden visual curriculum, stereotypes, visual culture, racism

AURKIBIDEA

- 1. JUSTIFIKAZIOA**
- 2. SARRERA**
- 3. MARKO TEORIKOA**
 - 3.1. Kulturartekotasuna Euskal Herriko eskoletan
 - 3.1.1. Ikaslegoaren errealitatea gaur egungo euskal eskoletan
 - 3.1.2. Kulturartekotasuna lantzeko proiektu eta material didaktikoak
 - 3.2. Ikusizko lengoaiaren eragina haurren iruditegian
 - 3.2.1. Haurrei zuzendutako ikus-entzunezkoak
 - 3.2.2. Ikusizko curriculum ezkutua
 - 3.3. Lehen Hezkuntzan kultur-aniztasuna lantzeko ikusizko baliabideak
 - 3.3.1. Kulturartekotasuna zaintzen dituzten ikus-entzunezkoak
 - 3.3.2. Ipuinak material didaktiko gisa
- 4. HELBURUAK**
- 5. METODOA**
 - 5.1. Ikerketaren testuingurua eta parte hartzaileak
 - 5.2. Ikerketaren prozedura
 - 5.3. Ikerketa-tresnak
- 6. EMAITZAK**
 - 6.1. Eskolako Ikusizko Curriculum Ezkutuaren analisia
 - 6.2. Lehen Hezkuntzako ikasleen iruditegiaren analisia
- 7. ONDORIOAK**
- 8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK**
- 9. ERREFERENTZIAK**
- 10. ERANSKINAK**

1. JUSTIFIKAZIOA

Gero eta globalizatuagoa den mundu baten parte gara, non gizarteak jatorri etniko eta kultural desberdineko pertsonak osatzen dituzten. Gero eta mundu anitzagoan bizi gara, kulturei, etniei, erlijioei, hizkuntzei eta tradizioei dagokienez. Kultura-aniztasun hori gure gizarte garaikideen funtsezko ezaugarria da, eta garrantzitsua da hori jakitea eta baloratzea. Izan ere, gaur egun eskola asko dira kulturartekotasuna lantzeko proiektu eta material didaktiko berriak proposatzen dituztenak. Bestalde, eskola ez da erakunde neutro bat, eskola bakoitzak helburu jakin batzuk ditu, hezkuntza pedagogia eta baita filosofia jakin bat ere. Jakintza, arau, ohitura eta sinesmen hauek hitzez adierazten dituzte, baina baita irudi eta ilustrazio didaktiko jakin batzuk erabiltzean edo aitzitik, hauek ez erabiltzean.

Urteak pasa ahala, irudiek hartzaileek munduari buruz duten ezagutza eta ulermena eraikitzeke moduan eragin handia dutela ohartu naiz. Ilustrazioen hartzaileak haurrak badira, are garrantzitsuagoa da irudi horiek bidaltzen dituzten mezuak aztertzea, izan ere, haurrak Lehen Hezkuntzan daudenean, garapen-etapa erabakigarrian daude eta inguratzen dieten munduaren ikuspegiak eta ulermenak osatzen ari dira. Hori dela eta, etorkizuneko irakasle bezala, gaur egungo eskola testuinguru batean erabiltzen diren irudien eta ilustrazioen azterketa egitea beharrezkoa ikusten dut: material didaktikoak, eskolako pasilloetako irudiak, gelako hormetan dauden ilustrazioak... ikertzea ezinbestekoa dela deritzot. Gero eta multikulturalagoa den mundu batean bizi garenez, batez ere, ilustrazio hauek kultura-aniztasuna islatzen duten aztertu nahi dut eta islatzen badute, zein modutan egiten duten. Era berean, Lehen Hezkuntzako ikasleen iruditegia ere aztertu nahi dut, hau da, ikasleek une oro jasotzen dituzten irudi horiek beraien erreferente bisualak bilakatzen dira eta beraiengan zer nolako eragina duten aztertzea erabaki dut, estereotipoek gure gaurko gizartean duten presentzia azalertzeko.

Horregatik, haurrek kontsumitzen dituzten irudiak kulturartekotasuna bermatzea funtzeskoa da nortasun positiboa eta enpatia sustatzeko eta aldi berean, pentsamendu kritikoa garatzeko eta gizarte bidezkoagoa eraikitzeke. Kultura- aniztasuna islatzen duten irudiak jasotzean, ikasleen artean harreman osasungarriak bultzatu ahal izango dira. Hezkuntzarik gabe ez dago arrazakeriarik gabeko etorkizunik, eta horregatik irakasleak funtsezkoak dira borroka honetan. Ikasgeletako irakasle kontzienterik gabe, borroka galdua dugu eta horretarako ikasgelan aurkitzen ditugun irudien behaketa eta hausnarketa kritikoa egitea beharrezkoa da.

2. SARRERA

Gizartean gertatzen ari den inmigrazio fenomenoak eskoletan islatzen ari da, hots, aniztasuna eguneroko bizitzaren parte da, eta ondorioz, baita ikastetxeetako errealitatearen parte ere. Azken hamarkadan, Euskadin 33.079 ikasle atzerritarrak dira (21.227 Lehen Hezkuntzan eta 11.852 Bigarren Hezkuntzan), era berean, lurraldeka Gasteiz da ikasle etorkinen ehuneko handiena duena, Lehen Hezkuntzako matrikulak %25ekoa eta DBHn %20koa izanik. Gipuzkoan eta Bizkaian, %15 ingurukoa da bi etapetan (EFE, 2019). Horretaz gain, 2018an jasotako datuen arabera etorkinen %80 eskola publikoetan matrikulatzen da eta itunpeko ikastetxeetan beste %20a (Azumendi, 2018).

Bestalde, eskola testuinguru batean topa genezakeen irudi didaktiko oro, hala nola, fitxak, testuliburuak, hormetan dauden irudiak, kartelak, irakaslearen aurkezpen digitalak... irakasleek transmititu nahi duten informazioa antolatzen laguntzen dute. Ikasleei ezagutza berriak eskaintzeaz gain, jakintza, arau, ohitura eta sinesmenen bilduma bat dira, haurrek une oro jasotzen dituztenak modu inplizitu batean. Jasotzen ditugun irudiek, ideiak, balioak eta iritziak helarazten eta eragiten dizkigute, gure gogamenean sartzen direnak eta mundua ulertzeko dugun modua baldintzatzen digutenak. Inolako mugarik gabe kontsumitzen ditugu, eta arriskutsuagoa dena, hauek zalantzan jarri gabe (Dominguez, 2021).

Beraz, gaur egungo eskolen migrazioen testuingurua zein den ezagututa, eta irudien boterea kontuan hartuz, GrAL honetan hurrengo galderei buruz hausnartu egingo da: nolako irudiak jasotzen dituzte haurrek gelan? Nolako da arraza desberdinen trataera ilustrazio didaktikoetan? Kultura-aniztasuna islatzen da? Eta horrela bada, zer irudi motak topatu ditzakegu eskoletan arraza desberdinak erakusteko? Oraindik ere gaur egungo irudietan estereotipo etnozentrakoak agertzen dira? Haur oro ipuin bateko orrialdetan islatuta sentitzen da? Edozein haur, bere arraza, kultura, erlijioa kontuan eduki gabe, bere bizitza kontatzen duten istorioak ikusiko dituzte? Haurrek jasotzen dituzten ilustrazioek beraiengan eragina dute?

Laburbilduz, ikerketa honen bidez haurrek eskolan egunero kontsumitzen duten ikusizko kulturaz eta honek igortzen dituen estereotipoez hausnartu nahi da, bereziki eskolako irudiek arrazakeri eta kulturartekotasunari buruzko bidaltzen duten mezuen inguruan, gure ingurunean izan dezaketen eragina aztertzeko. Izan ere, irakaskuntza-prozesuan erabiltzen diren bideo, pelikula eta material didaktikoetan normalizatuta ditugun irudiak agertzen dira, eta horiei buruzko behaketa kritikorik egiten ez bada, irakasleok, konturatu gabe, iruditegi estereotipatua helarazi diezaiokegu haurrei.

3. MARKO TEORIKOA

Atal honetan, alde batetik, Euskal Herriko eskoletan kulturartekotasunaren egoera aztertuko da, gaur egungo euskal eskoletako ikasleriaren errealitatea zein den eta eskolan kulturartekotasuna lantzeko proiektu eta material didaktiko desberdinak ikertuz. Bestalde, ikus-entzunezkoetan kultura-aniztasunaren gaiari lotuta bidatzen duten eduki eta mezuen azterketa egingo da. Honekin bat, eskolako ikusizko curriculum ezkutua zer den eta nola adierazten den ikertuko da. Halaber, Lehen Hezkuntzan kultura-aniztasuna lantzeko ikusizko baliabideak aztertuko ditugu, kulturartekotasuna zaintzen dituzten ikus-entzunezkoei arreta erreparatuz. Marko teorikoarekin bukatzeko, ipuinak material didaktiko gisa erabiltzeko irizpide eta adibideak jaso dira.


3.1. Kulturartekotasuna Euskal Herriko eskoletan

Gizartean gertatzen ari den immigrazio fenomenoak eskoletan islatzen ari da, hots aniztasuna eguneroko bizitzaren parte da, eta ondorioz, baita ikastetxeetako errealitatearen parte ere. Gaur egun ohikoa da ikasgela batean mundu osoko hamaika herrialde ezberdinetako ikasleak izatea, horrek dakarren aberasgarritasun guztiarekin.

3.1.1. Ikaslegoaren errealitatea gaur egungo euskal eskoletan

Naiara Berasategi Psikologia Sozialean doktorea 2014an Hizkuntza eta kultura aniztasuna Bilboko eskolen inguruko ikerketa bat egin zuen, euskararen erabileran eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak ikertu nahian. Ikerketa horietatik hainbat datu atera zituen: Euskal Herriko kaleetan, euskara, frantsesa eta espainiera ez ezik, bestelako hizkuntzak ere entzuten dira: wolofera, errumaniera edo tamazighera, adibidez. Bestalde, ikertzaile honek 100 hizkuntza zenbatu ditu Nafarroa eta EAEn (espainiera, frantsesa, ingelesa eta portugezaz gain). Hortaz, datu hauek ere garbi adierazten dute lurralde hauetan dagoen hizkuntza aniztasuna.

Irudian ikus dezakegun bezala, 2001ean 25.441 etorkin jaso zituen Euskal Autonomia Erkidegoak; 2006an, 61.827; 2011an, 151.128; eta 2016an, 149.348. Euskal-eskola ere aniztasun horren adierazle da, azken urteetan ikasle etorri berrien kopurua 34.921 izanik (Eustat, 2012-2013 ikasturtea). Espainiako Gobernuak Hezkuntza Ministerioaren arabera, duela hogeit hamar urte, 2001-2002an, 7.739 ikasle atzerritar (espainiar nazionalitatea ez zutenak) zeuden eskoletan, eta 2020-2021eko ikasturtean 43.615. Laburki adieraziz: Nafarroan, ikasleen %4,3 ziren ikasle atzerritarrak duela hogeit hamar urte, eta %9,6 dira gaur egun. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, %1,4 ziren duela bi hamarkada, eta %8,7 dira orain (Lete, 2022).



1. Irudia: EAEk jaso dituen emigrante kopurua urtero. Iturria: EUSTAT (d.g.)

EAEk, eta Gasteizek bereziki, estatuko eskola-segregazioaren indizerik altuenetakoa du. Estatuko bigarrena da Madrilen atzetik. Gasteizeko eskola publiko gehienetan jatorri atzerritarreko ikasleen kopurua %30, %50 eta %80 baino handiagoa izatera iristen da (Orue, 2019). Gasteizeko eskola publikoetan sakonduz, STEILAS sindikatuak eta IKUSBIDEK 2021ean Gasteizen jatorri migratzailea duten ikasleen segregazioa egoera aurkeztu dute. Ikerketa horren arabera, Gasteizek Estatu osoko eta Europako eskola-segregazio indize altuenak ditu. Azterlan honen helburua jatorri migratzailea duten gazteen egoera aztertzea da eta horrekin bat, hezkuntza-sistemak aukera-berdintasunaren printzipioa betetzen duen egiaztatzea. Lortutako daturik nabarmenena eskola-segregazioarekin lotuta dago: eskola segregatutako ikastetxeetan, ikasleen % 83,8 migratzaileak dira.

Euskal Herrian era askotako jendea bizi da eta guztien arteko elkarbizitza egokia izan dadin aniztasuna taxuz kudeatzea komeni da, nola herrietan hala eskoletan. Datuei erreparatzea nahikoa da gizarteko nahiz eskoletako errealitatea gero eta anitzagoa dela konturatzeko. (Hik hasi, 2013). Era berean, aniztasunaren aberasgarritasunaz gozatu eta egungo gizartean planteatzen diren erronkei erantzukizunez aurre egin behar zaie, horretarako ezinbestekoa da ikasle guztien integrazioa zein haien kohesioa eta elkarbizitza ahalbidetzea.

STEILAS sindikatuak eta IKUSBIDEK (2021) diotenaren arabera, munduan hizkuntza aniztasun handi bat dago, hau kultura eta identitate aniztasunarekin erlazionatzen da. Bestalde, migrazioa gaur egun mundu osoko errealitatea da. Migratzaileak hizkuntza berriak ikasi eta erabiltzen dituzte, eta hizkuntza horiek haien identitatearen parte bilakatzen dira. Segregazioak bestalde, komunitateen arteko harremanak murrizten ditu eta hizkuntza-erabileraren arloan desberdintasun handiak eragiten ditu. Migratzaileak sartzen diren komunitateetan, hizkuntza aniztasuna sortzen da eta segregazioaren eraginez mugaketak azaldu daitezke. Gaur egun, tresna guztiak erabil daitezke hizkuntza aniztasuna,

migrazioa eta segregazioa kudeatzeko. Egungo eskolen testuingurua zein den aztertu ondoren, ezinbestekoa da kultura-aniztasunaren kudeaketa aztertzea eskoletan.

3.1.2. Kulturartekotasuna lantzeko proiektu eta material didaktikoak

Aurreko atalean emandako datuetatik abiatuta, interesgarria da kultura-aniztasunaren kudeaketa aztertzea eskoletan. Beraz, atal honetan planteatzen dugun funtsezko galdera honako hau da: nola egokitzen da hezkuntza-sistema jakinda eskola segregatueto errealtatean ikasleen aniztasuna dagoela oinarrian?

Ikastetxeetako kultur-aniztasuna kudeatzeko hainbat proiektu eraman dituzte aurrera Euskal Herriko eskoletan. Honen eredu Elkarrekin kooperatibak sortutako *Ongi etorri eskolara* proiektua dugu: kulturartekotasuna osotasunean lantzen duen proiektua (ikasgelan, eskolan, familiekin eta auzoan edo herrian). Honako hauek dira proiektu honen barruan aurrera eramaten diren jarduera bereizgarri batzuk:

- Eskolak osatzen dituzten hizkuntzei ikusgarritasuna emateko eta aniztasunaren abantaila aprobetxatuz, eskolaren jatorri desberdinetako familiak ikasgelara hurbiltzen dira frantsesez, arabieraz, ukraineraz, ingelesez, euskaraz, mongolieraz, errumanieraz, katalanez eta urduz ipuinak kontatzera.
- Kulturarteko jaia: Eskolako jatorri desberdinetako familiek beraien jatorrizko herrialdeetako artea, literatura, gastronomia eta ohiturak irakasten dizkiete. Kultura ezberdinak ezagutzeko eta probatzeko aukera paregabea izanik.
- Eskolako jatorri desberdinetako kirol ezagunak sustatzen dituzte, ginkana erraldoi baten bitartez.

Ongi etorri eskolara proiektuan tailerrak ere burutzen dituzte. Tailerra “Mundua aldatzeko artea” deitzen da eta bertan, lehen hezkuntzako ikasleekin nire lurra kontzeptuari buruz hausnartzen dute, eta baita artea gizarte-eraldaketarako tresna gisa nola erabili daitekeen inguruan ere. Tailer hauetan ikasleek beren artelana marrazkien bidez sortzen dute eta marrazkiak erakusketa batean jartzen dituzte ikusgai.

Eskoletan zein herrietan kultura ugari daude, eta horiek guztiak harremanetan jartzea eta elkarrekin aritzea garrantzitsua da. Hori dela eta, *Ongi etorri eskolara* proiektuaren barruan, eskolan ez ezik, “Gure plaza gure hizkuntza” jarduera ere burutzen dute zenbait herriko plazetan. Jarduera honetan jatorri ugari hiritarrek hizkuntza hitza beraien hizkuntzan edo euskalkian idazten dute mural batean. Helburua herrialdean elkarrekin bizi diren eta elkarri eragiten dioten askotariko jatorria duten kulturetako hizkuntzak biltzea, bistaratzea eta bakoitzari bere balioa ematea da. “Nire lurra, kulturarteko begirada” ekimena ere burutu

zuten. Ekimen honen oinarrian aniztasun kulturala ikusarazi eta kulturartekotasuna sustatzea dago. Artea, hausnarketa eta aniztasuna batzen dituen ekimena da: hiriko aniztasuna argazkiz dokumentatu eta espozioa batean jartzean kultura eta arte-trukerako gune bat sortuz.

Bestalde, Euskal Herriko hainbat eskoletan *JEDI (Aniztasunean eta Inklusioan oinarritutako Hezkuntzaren aldeko Gazteak)* plataforma interaktiboa erabiltzen da. Hezkuntza-proposamen hau jokoan, talde-lanean eta parte-hartze aktiboan oinarritutako lau erronken bidez, ikasgelan kultura arteko bizikidetzan inklusioa sustatzea du helburu. 6 eta 18 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteei zuzendutako egokitzapenak dituzte. Honako hauek dira plataforma interaktibo honen helburuak: desberdintasunak ulertzea eta errespetatzea, pertsona guztientzako diskurtso inklusiboak harrerakoak eta errekonozimenduzkoak sustatzea, gizarte aniztasun eta kulturarteko gizartearen alde lan egitea, elkarrizketa, talde-lana, enpatia, asertibitatea, errespetua eta entzute aktiboa sustatzea.

Lau erronka horiek prestakuntza ibilbide baten barruan daude: Lehenengo jardueran norberak gure hastapenei buruzko ikerketa egin beharko du, pertsonak leku batetik bestera egindako mugimenduak giza bizitzaren eta norberaren istoriaren barruan arruntak direla onartzeko. Bigarren ariketan giza mugikortasunaren gaur egungo errealitateari buruzko ezagutzak finkatzen dira, batez ere migrazioen eta migrazio-prozesuaren babes, arrazoi eta ondorioen errealitatea, eta hartutako pertsonen giza eskubideak ezagutzeko. Hirugarren jardueraren helburua giza mugikortasunaren arrazoiak eta beren jatorriko herrialdea utzi behar duten pertsonak bizi duten errealitatearen inguruan hausnartzea da. Eta azkenik, laugarren erronkan beste pertsona batzuentzako jarduera bat planifikatu eta garatu behar da: migratzaileen inguruko zurrumurruak eta estereotipoak desmuntatzeko.

Modu berean, Aula Intercultural erakundearen eskutik 2018an sortutako *Tratimundi: aniztasuna ilusioa den leku bat* proiektua ere dugu. Irakasleentzat, familientzat eta haurrentzat bideratutako sentsibilizazio-kanpaina bat da. Honako hauek dira proiektuaren helburuak: Alde batetik hezkuntza-ekitatean laguntzea eskola-arrakasta erraztea. Bestetik, ikasle guztientzako aukera-berdintasuneko hezkuntza-ibilbideen garapena bultzatzea. Eta azkenik hezkuntza-komunitatean kultura-aniztasunaren aintzatespena sustatzea, arrazismoa eta xenofobia ekiditeko.

Proiektu honen barruan materiak desberdinak topa genezake, irakasleentzat, familientzat eta haurrentzat bideratuta. Alde batetik, *Tratimundi* ipuina dugu, aniztasunarekiko errespetuan eta giza eskubideetan oinarrituta dagoena. Ipuin honetan haur guztiak protagonista sentitzen dira. Bestalde, irakasleentzako online material didaktikoa dugu: ikasgeletan aukera-berdintasunean hezkuntza-ibilbideak garatzen lagun dezaketen tresnak,

hausnarketak, edukia, informazioa eta jarduerak eskainiz. Proiektu honek irakasleentzat ez ezink, familientzako bideratutako online materiala ere eskaintzen du, etxeak, eskolak, herriak eta hiriak topaleku eta sorkuntza-gune direla ikasteko. Azkenik, ikasleentzako material didaktikoa dugu: modu dibertigarrian esaldi eta jolasen bidez giza eskubideak eta aniztasuna partekatzen, errespetatzen eta gozatzen ikasteko.

Argi dago hezkuntza gizarteko beharren arabera moldatu behar dela eta gaitasun berriak garatu behar dituela. Hori horrela, migrazioa hezkuntzan zaintzeko alderdi bat dela ikusi da, eta horretarako material didaktiko gehiago sortzen ari da hezkuntza munduan.

3.2. Ikusizko lengoiaren eragina haurren iruditegian

Beste gauza askoren artean, gizakiok batez ere izaki bisualak gara. Dominguez-ek (2021) diotenaren arabera, gure garunak prozesatzen duen informazioaren %90a bisuala da. Irakurtzen dugunaren %20a, entzuten dugunaren %10a eta ikusten dugunaren %70a gogoratzen dugu. Hori horrela, informazioa are garrantzitsuagoa da oraindik pentsamendu kritikorik garatuta ez dagoenean, haurtzaroan gertatzen den bezala (Hidalgo eta Pertíñez, 2005). Lau urterekin gure garuna erabat iragazkorra da, dena jasotzen du eta ez du zalantzan jartzeko baliabiderik (Dominguez, 2021) beraz, haurrek irudien bitartez jasotzen duten mezu ezkutua aztertzea ezinbestekoa da, hau da, momentu oro kontsumitutako irudiak etnozentrikoak edo aitzitik kulturartekotasuna sustatzen duten jakitea beharrezkoa da.

3.2.1. Haurrei zuzendutako ikus-entzunezkoak

Aipatu bezala, bisualki jasotzen dugu informazio gehiena eta jakinda haur batek telebistaren aurrean ikasgelan baino denbora gehiago ematen duela (Hidalgo eta Pertíñez, 2005), interesgarria izango litzateke jakitea haurren ikusbideen kotsu joerei buruz. XX.mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran haurrei irudien bidezko narratibak azaltzeko modu berri bat sortu zen: marrazki bizidunak. Urteak joan urteak etorri, norabide askotan garatu egin dira haurrentzako ikusbideen industria eta joerak. Hirurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, haurrek bakarrik familiarik edo hurbileko inguruetik zetorren ereduak zituzten, eta ikus-entzunezko baliabideak eredu berri erakargarriagoak eta zirraragarriagoak bihurtu ziren (Rajadell et al., 2005). Quequik (2016) baieztatzen du gero eta gazteagoak diren haurrak mundu errealerara begira jartzen diren jakin-min berarekin hurbiltzen direla pantailetara: lagunekin jolasteko, nabigatzeko, musika deskargatzeko edo txateatzeko. Gaur egungo haurrek telebista eta, jakina, plataforma digitalak (youtube, netflix, instagram...) ia modu independentean erabiltzen dituzte, izan ere, teknologi hauek eskura

dituzte eta erabilera erraza dute (Salazar eta Chang, 2017).

Bestalde, nahitaezkoa da jakitea zer nolako edukiak kontsumitzen dituzten gaur egungo haurrek eta horrekin batera zer nolako joerak dituzten kontsumitzen dituzten pertsonai horiek, azken batean pertsonai horiek beraien erreferenteak bilakatzen baitira. Ruizek (2016) kultur aniztasunari eta animazioari buruzko ikerketa bat egin zuen. Horren emaitzak erakusten dutenez, ulertu dezakegu alde batetik berrogeita hamarreko hamarkadatik gaur arteko telebistako animazioek bilakaera izan duetela eta bestalde, laurogeiko hamarkadarekin batera, telesailen bidez telebistako animazioan aniztasun pixka bat ikusten hasten dela: nahiz eta marrazki bizidunen protagonistak orokorrean erdiko klaseko familia zuri bat izan, desberdintasun ekonomikoak, arrazakeria edo sexualitatea bezalako gaiak islatzen dituzte, pixkanaka etnia, kultura edo erlijio aniztasuna sustatzen. Hala ere, autore honek zera ondorioztatu du: ikusbideen industriuan edukien aldaketak antzeman daitezkeen arren, oraindik ere arrazakeriaren pertzepzioa eta tabuak areagotzen duten marrazki bizidunak kontsumitzen ditugu gaur egun.

Walter Elías Disney marrazki bizidunen aitzindaria hartzen da. 1928an Disneyko Mickey sagu ospetsua pantailetan lehen aldiz agertzen da film labur batean. Gaur egun haur guztiek Disneyren klasikoak ezagutzen ditugu eta pertsonai hauek gure erreferente bilakatzen dira. Hau jakinda, adierazgarria da berrogeita hamasei urte behar izan zituela Disney-k printzesa afroamerikar bat protagonista izango zen film bat sortzeko. Disney eta arrazaren eta gizarte-klasearen alderdiekin lotuta, film askotan pertsonaia gaiztoa edo ergela arraza zuria ez den beste etnia bateko kide gisa agertzen da. *Aladdin* pelikulan pertsonai gaiztoek arabiar baten ezaugarri estereotipatuak erakusten dituzte: bizarra, sudur mirotza, azal iluna. *Aladdin* eta *Jasmine* berriz, mendebaldeko ezaugarriak dituzte. *El rey León* lanean *Scar* gaiztoa *Mufasa* baino askoz ilunagoa da (Digón, 2006). Bestalde, *Edurnezuri* eta *Ahatetxo itsusiaren* pelikulan sustatzen diren balioak aztertzen baditugu, ondorengo mezu inplizitu hau topatuko dugu: zuria ez izateak zikina, lizuna, basatia eta gaiztoa izatea esan nahi du (Márquez, 2017).

Beste alde batetik, *Mulan* pertsonaia dugu, 1998an estreinatu eta kritika ugari jaso zituen: erreferentzia estereotipatu asko eta Txinako kulturaren irudikapen desegokia dituelako. *Herkules*-en, lehen emakumezko afroamerikar pertsonaia ikusten dugu, baina antzezteko modua kritikatzeko zaio: musei eman zitzaizkien ezaugarri fisikoak emakume afroamerikar baten estereotipoak jarraitzen baitutuzte, bihurtuak, aldaka handiak eta gerri txikiak dituztelako. *Pocahontas* filmean, protagonista kultur desberdin baten eredu izanda, bai edukien aldetik bat alderdi fisikoan, sexualizatuta dago (Blázquez, 2023). Beraz, nahiz eta arraza zuria ez den beste arraza bateko pertsonaiak lehen lerroan jarri, beti estereotipoetan

erortzen dira. Gainera film hauetan azal iluneko pertsonaiak zuriago bihurtzen dituzte (Márquez, 2017).

Marrakzi bizidunen irismena handia da, herri kulturaren parte izatea lortu dute. Herri-kultura horren barruan erantzukizun handia dute: pertsonai horiek ez dira soilik beraien entretenimenduaren parte, lagunak eta jarraitu beharreko ereduak ere badira (Mérigo, 2019). Hala eta guztiz ere, film batzuetan mendebaldeko arraza ez denari ikusgarritasun handiagoa ematen saiatu dira, baina ez dira errealitatearekiko leialak, ez baitute ezagutzen haien historia, nortasuna ezta gaur gaur egun sufritzen dutena, eta, azkenean, irudikapen oker batean erortzen dira eta ondorioz, estereotipoak sustatzen dituzte (Márquez, 2017). Garrantzitsua da belaunaldi askori transmititzen ari zaien informazioa aztertzea, ulertzea eta ebaluatzea, batez ere hartzaileak haurrak badira, irudi hauek beren nortasunaren eraikuntzaren osagai definitzailea baitira (Monleón, 2018).

3.2.2. Ikusizko curriculum ezkutua

Haurrak ez dira beraien inguruetik isolatuta hazten eta beraz, irudi estereotipuekin aurkitzen dira haien egunerokotasunean. Dominguez-en (2021) hitzetan, estereotipoak heredatutako kode bisualen errepikapenagatik eta informazio anitza eta konplexua sinplifikatzeko beharragatik sortzen dira. Estereotipoak hainbat gizarte-talderen irudikapenak dira, oro har hedabideen bidez zabaldutako eta pertsona gehienek beren gain hartu dituenak, gizataldeen arteko desberdintasunak edo ezaugarriak areagotzen, epaitzen, desitxuratzen eta egonkortzen dituztenak (Dominguez, 2021). Honako honek sekulako arazoak dakartza gizartearen ikuspegi orokorrean, izan ere, estereotipoek, kontzienteki edo oharkabean, gure pentsamendua moldatzeko gaitasuna dute (Castrillón eta Jiménez, 2017). Horregaitik ikerketa honetan eskolan haurrei irudi bidez bidaltzen zaien mezuetan sakondu nahi izan da, eskolaren ikusizko curriculum ezkutuaren analisia eginez.

Acasok eta Nuerek (2005) ohartarazten duten moduan, ikastetxera iristean, ikasleak irudi eta mezuen bonbardaketa bat jasotzen hasten dira, inkontzienteki bereganatzen dituztenak. Hemen curriculum ezkutua sartzen da. Curriculum ezkutua hezkuntza-testuinguru batean modu inplizituan transmititzen diren edukien multzoa da. Hezkuntza ezagutzak sortzeko eta informazioa transmititzeko prozesua dela ulertuta, bi eratarik transmititu daitezke ezagutza hauek: diskurtso esplizitu edo agerikoaren bidez eta diskurtso inplizitu, hau da, ezkutu baten bidez. Hortaz, ezkutuko curriculum bisuala gutako bakoitzaren aurrean kokatzen da: kartelak, irudiak, material didaktikoa, aldagelak, etab. Gauza horiek guztiak ez daude hor egoteagatik, zeregin bat dute, esanahi bat dute: eskolan irudien bidez ere obeditzen ikasten dugu (Acaso eta Nuere, 2005). Sorpresaren bat edo beste izan dezakegu ikasgelako

espazio bakoitza ondo aztertuz gero: gelak, komunak eta korridoreak adibidez, ikasteko eta irakasteko lekuak bilakatzen dira eta esanahiz beteriko ikus-elementuak dira. Hezkuntza-ingurune baten barruan esanahia duten elementu horiek ikusizko produktuek eta gizakiak diseinatutako elementu ez-naturalek osatzen dituzte, eta ikusizko lengoaiaren bidez oso mezu zehatzak igortzen dituzte. Gutako bakoitzak bere pentsamendu-lerroa garatu ahal izateko, ezinbestekoa da ikastetxe eta eskoletan inguratzen gaituen ikusizko kulturaren azaletik harago joatea eta inguruan ditugun irudiak gure burmuinean zer ideia eraikitzen ari diren aztertzea (Acaso, 2009).

Hori horrela, aztergai duguna irudiaren tratamenduaren irizpide didaktikoa da. Hau da, funtzio estetiko eta motibatzaileaz haratago, beharrezkoa da irudiaren balioa birkontzeptualizatzea eta asmo pedagogikoaren terminoetan kapitalizatzea. Beharrezkoa da irakasleek eskola batean agertzen diren irudi guztiak kritikoki aztertze gaitasuna izatea (Casablancas, 2000), izan ere, ezkutuko curriculumak, esplizitua ez denez, askotan ez da kontuan hartzen, baina Posnerrek (2005) ohartarazten duen moduan, haren eragina curriculum ofiziala baino handiagoa da. Argi dago eskola ez dela erakunde neutroa eta hautaketa bat egiten denean (zenbait edukiri garrantzi maila handiagoa ematen diogunean beste batzuk daudela aipatu gabe edo garrantzi gutxiago emanez) curriculum ezkutua eraikitzen/indartzen ari gara. Horrela, estereotipoak "ezkutuan" transmititzen dira, genero-alderdi, etnia edota alderdi fisikoei buruzko azpimezuak islatuz (Cisterna, 2002). Honekin batera, irakasleak erabiltzen dituen irudiak, edo testu-liburuek dakartzatenak, askotan, curriculum ezkutuaren iturri oso indartsua dira, eta horrela mendeetan mantendu eta iraunarazi diren eraikuntza eta gizarte-harremanak irakasten dizkiegu ikasleei. Arrazakeria gure kulturaren eta gure ikuspegiaren txertatuta daramagu, eta, beraz, gure eguneroko harremanetan erreproduzitzen da, errotik erauztea askoz zailagoa eginez. Gure diskurtsoetan hezkidetzaren adierazi arren, ikasgelako irudiek kontrakoa adierazten badute, ezinezkoa da eredu horiek ugaltzeari uztea (Rebollo, 2006).

Laburbilduz, irakasleek maiz beraien burua pertsona objektibo eta neutraltzat ikusten dute. Hala ere, ikasgelen barruan azterketa etnografikoak egiten direnean edo curriculum-materialak berrikusten direnean, oso azkar agertzen dira gure begien aurrean hezkuntza-sistemak eskaintzen dituen neutraltasun-autoirudiak baliogabetzen dituzten jokabideak (Martínez eta Gómez, 2019). Hezkuntzarik gabe ez dago arrazakeriarik gabeko etorkizunik, eta horregatik irakaslearen alfabetatze bisuala eta irudiekiko behaketa kritikoa ezinbestekoa da.

3.3. Lehen Hezkuntzan kultur-aniztasuna lantzeko ikusizko baliabideak

Aurreko atalean ikusi den moduan, irudia oinarrizko komunikazio-tresna da haurtzaroan, baita adierazpen, komunikazio eta funtsezko ezagutzak barneratzeko bidea ere. Momentu oro kontsumitzen ditugu irudiak, beraz kultura-aniztasuna bermatzen duten ikusizko baliabideen berri izan behar dugu.

3.3.1. Kulturartekotasuna zaintzen dituzten ikus-entzunezkoak

Hainbat ikerketek telebista sozializazio-elementua dela erakutsi dute; izan ere, telebistak sozializatzear gain, pentsamendua indartzen du eta hau bereziki garrantzitsua da, izan ere, teknika honekin haurrek gizarteko ereduak barneratzea lortzen dute (Rajadell et al., 2005). Arraza-aniztasunari begira, Inmaculada Sanchez doktoreak 2018an azterketa bat egin zuen: lehen hezkuntzako 1.275 ikasleri telebistaren bidez gehien ikusten zituzten marrazki bizidunak zeintzuk ziren galdetu ziren. Behin gehien kontsumitzen zituzten marrazki bizidunen emaitzak edukita, hauek aztertu eta honako hau ondorioztatu zuen: kultura-aniztasuna zenbait titulutan agertzen den arren, emandako tratamendua ez da egokia kasu guztietan. Ikerketa honen emaitzek erakusten dute kultura desberdinen presentzia aztertutako tituluen % 40an ematen dela, baina % 20an soilik tratatzen da aniztasuna modu ez estereotipatu batean, hau da, % 20ko telesaietan bakarrik Europa mendebaldeko ez den etnia, arraza eta kulturako pertsonaiak errealitatearekiko leialak dira. Argi dugu telebistako animazioek bilakaera izan dutela, azken urteetan beste serie eta film mota batzuk hasi dira agertzen, baina nahiz eta aldaketak egon, oraindik ere kultura-aniztasuna sustatzen den telesai zein film asko estereotipoak areagotzen duten marrazki bizidunak dira eta horiek guztiak inkontzienteki kontsumitzen ditugu. Beraz, GrAL honetan identifikatu dira kultura-aniztasuna agertzen diren zenbait marrazki bizidun, pertsonaiek estereotipoak sustatzen ez dituztenak (irudiak 1.eranskinean):

- *Steven Universe*: Telesail honetako protagonista 14 urteko haur bat da. Bere kapituluetan harreman anitzei buruzko aipuak daude: orientazio sexualei buruzkoak eta pertsonaia arrazionalizatuari buruzkoak. Hori guztia abenturen funtsa galdu gabe.
- *Pequeño Bill*: Bill 5 urteko mutikoa da, eskolako ikaskideekin eta familiarekin batera jakintzaren abenturari aurre egin behar diona. Marrazki bizidun hauek transmititzen duten balioen artean kultura-aniztasunarena, lankidetzarena eta familiarena dago.
- *Super Why*: Super Why haur literaturako ipuin klasikoen laguntzarekin hurrei ingelesa irakasten dien serie interaktiboa da. Lau protagonisten eskutik ematen dira irakaskuntzak eta pertsonai horien artean kultura aniztasuna bermatzen da.
- *She-Ra*: Telesai honek mahai gainean jartzen du bere pertsonaien ñabarduren eta istorio pertsonalen garrantzia. Telesailak arraza, sexu eta genero aniztasun handia

du.

- *Motown Magic*: Telesai musikatu honek Motown ezagunaren eszena erakusten du, 60ko hamarkadan afroamerikarreko musikari handiak ezagutzera eman zituen. Marrazki hauek bereizkeriarik gabe eginda daude, arraza-aniztasuna, gorputz-aniztasuna eta familia-aniztasuna baitaude.
- *The proud family*: Arraza beltzeko familia bat da telesail honetako protagonista. Penny izeneko nerabe baten eta haren lagun taldearen bidez, institutuan dituzten abenturen berri izango dugu. Onarpen, feminismo eta historia eta kultura beltzez hitz egiten duen animazioa da.
- *El mundo de Craig*: Abenturazko telesai bat non protagonisten artean gizarte-aniztasunaren potentziala proiektatzen den.
- *CoComelón*: Musika-sail honek letrak, zenbakiak, animalien soinua eta askoz gehiago irakasten ditu. Guzti hau protagonisten arteko kultura desberdinen presentziaz.
- *Big blue*: Lettie eta Lemo anaiek itsaspeko bat gidatzen dute eta elkarrekin, euren itsaspeko unibertsoaren sekretu misterioitsuak argitzen dituzte. Protagonisten artean arraza-aniztasuna ageri da.
- *Avatar: La leyenda de Aang*: Telesai honek Aang-en abenturak kontatzen dizkigu. Aang gaztea gerran dagoen mundu batean esnatu da, eta bakea besterik ez du nahi. Heroiaren estereotipoetatik urruntzen den eta, edozein pertsona bezala, akatsak egiten dituen protagonista da Aang, budismoan eta taoismoan inspiratutako ideologia kulturala erakutsiz. Horrez gain, generoari buruzko estereotipoak hausten dituen telesai bat da.

Film eta serieen zerrenda honen bitartez ondorioztatu daiteke ikus-entzunezkoetan ere ikuspegi positibo eta normalizatzailea sustatu dezaketela, kulturen, etnien eta arrazen aniztasunarekiko errespetua kontuan hartuz. Hedabideek askotariko ikuspegiak eta esperientziak erakustean barneratutako estereotipoak eta aurreiritziak eraisten lagun dezakete, pertsonen artean ulermen eta enpatia handiagoa sustatuz. Hau da, askotariko pertsonaiak eta narrazioak aurkezten dituztenean, ingurune inklusiboagoa sortu ahal dezakete, non talde minoritarioetakoak direnek jarraitu beharreko ereduak aurkitzen duten eta pertsona oro gizartearen parte senti daitekeen.

3.3.2. Ipuinak material didaktiko gisa

Ipuinak fikziozko narrazio txiki gisa har daitezke, pertsonaia-talde txiki bat protagonista duena eta normalean argumentu erraza duena. Ipuinaren fikzioaren bidez, haurrak bere beldurrak, frustrazioak edo pertsonaiekiko gatazkak proiektatzen ditu; haiekin identifikatzen

da eta askotan une horretan bizitzen ari den arazoaren konponbidea aurkitzen du. Beraz, haurren garapenean zeregin garrantzitsua dute ipuinek, izan ere, eragin sakona dute beraien nortasunaren eta identitatearen eraikuntzan (Campos, 2005).

Orokorrean, LHn erabiltzen diren ipuin eta albumak bi baliabidez osatuta daude: idatzizko zatia eta ilustrazioen zatia. Bi elementu horien artean badago bat hizkuntza-aniztasunari laguntzen diona: ilustrazioak edo irudiak. Atzerritarrak diren ikasleentzat irudiak lagungarriak dira istorioak ulertzeko, hizkuntza berria ikasten ere lagundu dezakete. Albumak funtsezko istorioak irudien bidez kontatzen dituzten liburu edo konposizioak dira (Heras, 2017). Liburu mota hauetan irudia testuarekiko nagusitzen da, hau da, ilustrazioek bere gain hartzen dituzte erantzukizun narratibo ia osoa. Kasu gehienetan, hitzaren eta irudiaren arteko elkarreraginetik sortzen da esanahia (Arellano, 2008). Beraz, albumetan ilustrazioak funtsezkoak dira, elementu narratibotzat hartzen direlako, istorioa ulertzeko ezinbestekoak direlako eta funtsezko informazioa ematen dutelako (testuak ematen ez duena). Testua, ordea, azpian egon daiteke, baina gerta daiteke testurik ez agertzea (Bosch, 2015).

Album eta ipuinetan agertzen diren irudiek haurrak identifikatzeko ereduak ematen dituzte eta aldi berean, ideiak, balioak eta iritziak inposatzen dizkigute, burmuinean sartzen direnak eta mundua ulertzeko dugun modua baldintzatzen dituztenak. Beraz, jakinda Haur Hezkuntzako zein Lehen Hezkuntzako ikasleek etapa honetan beraien irudimenezko munduan murgilduta bizi direla eta horrek ipuineko pertsonaiekin identifikatzeko aukera ematen diela (Pérez et al., 2013), argi eduki behar dugu album eta ipuinen bitartez haurrek jasotzen dituzten ilustrazioek errealitate sozial eta kulturala erakutsi behar dutela, non haurrak identifikatu sentituko diren. Helburu horrekin, ikerketa honen barruan sortu da kultura-aniztasuna agertzen diren zenbait ipuin eta albumen zerrenda (irudiak 2.eranskinen):

- *Mendi bat jolastokian (Ana Oncina, 2019)*: Peruko paisaietara eta kulturetara hurbiltzen gaitu liburu honek; jolasak eta genero-estereotipoak zalantzan jartzen laguntzen digu; eta hezkidetzari jarraitzen dioten eskola-jolastokiez hausnartzera gonbidatzen gaitu.
- *Jatorrak gara (Sophie Beer, 2021)*: Egitura errepikakorrek eta marrazki adierazgarriak dituen liburu honen bidez, irakurle txikiei errespetuan, tolerantzian, maitasunean, arrazan aniztasunean eta kulturaztasunean oinarritutako jarrera sozialak irakasten dizkiete.
- *Andereño Vicky friki samarra da (Dan Gutman, 2018)*: Ikastetxean gauza arraroren bat gertatzen ari da eta ipuineko bi protagonisten eskutik abenturazko bidai batean murgilduko gara.

- *Maitasuna eta familia (Sophie Beer, 2021)*: Egun familia eredu ezberdinekin bizi gara: guraso bakarrekoak, sexu bereko gurasoak, aitona-amonekin bizi diren haurrak... Bildumako bolumen honetan familia eredu guztiak onargarriak direla beti eta haien elkarbizitza maitasunean oinarrituta dago. Sexuen arteko berdintasuna, pertsonen arteko berdintasuna, arraza aniztasuna eta kultur aniztasuna agertzen da.
- *Futboleroak: Sorgindutako gazteluaren misterioa (Roberto Santiago, 2017)*: Misterio eta abenturazko ipuin honetan arraza aniztasunaren presentzia emango da.
- *Maria eta amlaren mundu harrigarria (Betzaida Urtaza, 2021)*: Ipuin ilustratu honetan koloreen bitartez emozioak lantzen dira eta baita ezberdintasunak onak direla ere. Istorio samur bat dauka, ilustrazio polit eta koloretsuez betea, non arraza aniztasuna ematen den.
- *Bonitas (Stacy McAnulty, 2018)*: Neska politak ahaldunduta daude, bizkorak eta indartsuak dira, eta diren bezala maite dute elkar. Album ilustratu honetan neska eredu desberdinen presentzia dago liburuan bertan.
- *Gorputz guztiak dira ederrak (Beth Cox, 2023)*: Gorputz guztiek itxura desberdina dute. Liburu honek zu zeu izaten eta besteen artean ongi sentitzen lagunduko gaitu... azken finean ez gara hain desberdina!
- *Amigas (Lauren Ace eta Jenny Loulie, 2020)*: Lau neska txikitatik dira lagunak eta zuhaitz beraren azpian igarotzen dute denbora. Elkarrekin jolastu, ikasi eta hazi egiten dira, baina bizitzak oso bide ezberdinetatik eraman ditzakeela ere ohartzen dira. Album ilustratu honen bidez adiskidetasunaren garrantzia emango da, arraza aniztasunarekin batera.
- *La preocupación de Lucía (Tom Percival, 2018)*: Lucia beti zegoen pozik, harik eta kezka bat zuela ohartu zen arte, alde guztietan jarraitzen ziola. Istorio simple baina samurra, enpatia, konfiantza, komunikazioa eta integrazioa bezalako balioak goraiatzen dituena.

Aurreko guztia laburbilduz, gaur egungo Euskal Herriko eskolen oinarrian arraza eta kultur aniztasuna dagoela esan daiteke. Honekin bat, aniztasun hau taxuz kudeatzeko geroz eta ikastetxe gehiagotan proiektu berritzaileak proposatzen dituztela ikusi da. Modu berean, berrikuspen bibliografiko honen bitartez eskola bateko ikusizko curriculum ezkutua neutroa ez dela baieztatu daiteke eta baita ikusizko kulturak haurren identitatea osatzen dutela ere, hau da, eskolan zein ikus entzunezkoetan irudi estereotipuekin topatzen dira eta aldi berean estereotipo hauek haurtzarotik barneratzen goaz. Hori horrela, haurrek jasotzen duten ikusizko kulturak, arrazakeri eta kulturartekotasunari dagokionez, irudi estereotipatuak igortzen dutela eta hauek haurren identitatean eragina izan dezaketela ikusita, hauen inguruko hausnarketa kritikoa egitea beharrezkoa da.

4. HELBURUAK

Marko teorikoan azaldu den moduan, ikus-hizkuntzaren bidez oso mezu zehatzak igortzen dira. Eskolako irudiak, ikasleei ezagutza berriak eskaintzez gain, jakintza, arau, ohitura eta sinesmenen bilduma bat dira. Hori horrela, estereotipoak "ezkutuan" transmititzen dira eta hauek haurren identitatean eragina izan dezakete. Gai horiek abiapuntutzat hartuta, GrAL honen muina izan diren ikerketa galdera, hipotesi eta helburu batzuk proposatu ziren:

Ikerketa galderak

Nolako da arraza desberdinen trataera umeentzako ilustrazioetan? Kultura-aniztasuna islatzen da horietan? Eta horrela bada, nola jorratzen da irudien bidezko aniztasuna? Oraindik ere gaur egungo irudietan estereotipo etnozentrismoak agertzen dira? Haur oro ipuin bateko orrialdetan islatuta sentitzen dira? Zentzu honetan, ikusizko curriculum ezkutua zaintzen da? Haurrek jasotzen dituzten ilustrazioek beraiengan eragina dute arrazakeria edo kultur-aniztasuna sustatzerako orduan?

Hipotesiak

Hauek izan ziren GrALaren alderdi enpirikoarekin hasi baino lehen aurreikusi ziren hipotesiak:

- Gelan aurkitzen ditugun ilustrazio didaktiko gehienek ez dute ikastetxean aurkitzen dugun kultur-aniztasunarekiko errealitatea islatzen.
- Eskolan erabiltzen diren ilustrazio didaktiko gehienetan Europa mendebaleko arraza izango da gainartzailea.
- Ipuin eta album-en ilustrazioetan arraza zuriko etnozentrismoa guztiz normalizatua dago, eta hauetan Europa mendebaldeko etnia ez duen pertsonai bat agertzen bada, istorioaren gai nagusia migrazioa izango da.
- Ilustrazio didaktiko hauek, hau da, gelan jasotzen dituzten erreferente bisualak eragina dute haurren iruditegian.

Helburu orokorra

Lehen Hezkuntzako (LH) material didaktikoen ilustrazioak pentsamendu etnozentrismoa edo kulturartekotasuna sustatzen duten aztertzea.

Berriazko helburuak

- 1) LHko ikusizko curriculum ezkutua aztertzea eta material didaktiko gisa erabiltzen diren irudien analisi formala egitea, hauen ikusizko ezaugarriak eta mezu inplizituak identifikatzeko, bereziki kultur-aniztasunari begira.
- 2) Irudi hauek LHko ikasleengan izan dezaketen eragina aztertzea

5. METODOA

Atal honetan, GrAL-aren helburuak aurrera eramateko jarraitu den metodoa deskribatuko da. Horretarako, ikerketaren testuingurua, prozedura eta ikerketa-tresnak deskribatuko dira.

5.1. Ikerketaren testuingurua eta parte hartzaileak

Ikerketa Aranbizkarra Ikas Komunitatean burutu da 2023ko urtarrilaren 24tik martxoaren 31ra bitartean. Eskola hau Haur eta Lehen Hezkuntzako zentroa da, publikoa eta D eredukoa. Gaur egun ia 400 ikasle daude bertan eta munduko 28 herrialdetako familiak daude hezkuntza komunitatean. Aranbizkarra ikastetxeko ikasleen profila honako hau da: egoera sozioekonomiko apala, gurasoen prestakuntza akademikoa eskasa, atzeritar kopuru handia, ikasturtean zehar ikasle asko joan eta etortzen dira...

Parte-hartzaileei begira, ikerketa hau aurrera eramateko aukeratu den ikastaldea Lehen Hezkuntzako 1. maila izan da eta taldea 17 ikaslez osatuta dago, 8 neska eta 7 mutil izanik. Talde-giroa aproposa da ikerketa-jarduerak egiteko, ikasleek orokorrean oso ondo moldatzen baitira elkarrekin, nahiz eta tarteka suertatu liskarren bat edo beste, baina oso harreman ona dute haien artean.

5.2. Ikerketaren prozedura

Aurretik aipatutako helburuak lortzeko asmoarekin, lehenik eta behin, Aranbizkarra ikas komunitatean topa genezakeen irudi didaktikoak identifikatu eta aztertu nahi izan dira. Horretarako Ikusizko Curriculum Ezkutuaren analisisa egiteko protokoloa jarraitu da (Acaso, 2009, 76.or). Eskolako irudiak identifikatu eta sailkatu ostean, hauen analisi formal eta kritiko bat garatu da. Bestalde, ikasleek une oro jasotzen duten ikusizko kulturak beraiengan eragina duen jakiteko, Aranbizkarra ikas komunitateko 1. mailako ikasleen iruditegia aztertu da galdetegi bat erabiliz, honen bitartez haurren arrazakeria eta klase sozialen aurreiritziak identifikatzeko asmoz.

Ikerketaren alderdi enpirikoa aurrera eramateko metodologia mistoa erabili da, irudien analisi formalak zein galdetegiak datu kuantitatibo eta kualitatiboak jasotzen baitituzte. Ikusizko curriculum ezkutua eta ikasleen iruditegia aztertzeko datu kuantitatiboak jaso dira, eta emaitza horieri interpretazio kualitatiboa eman zaie. Hortaz, ikerketa-prozedura hiru fasetan sailkatu daiteke:

- Lehenengo fasea: Aranbizkarra ikas komunitatean ikasleek aurkitzen duten irudi esanguratsuenak jaso ditugu argazkien bidez Acasoren (2009) protokoloa jarraituz

emaitzen sailkapena egiteko.

- Bigarren fasea: Behin eskola eremuan ateratako argazki guztiak klasifikatuta, horien analisia egiteko ikerketa honetarako diseinatutako behaketa taula bat erabili da, non irudien analisi formala egiteaz gain edukien mezu inplizituak jasotzen diren.
- Hirugarren fasea: Ikasleek une oro jasotzen dituzten ikusizko mezu horiek beraiengan eragina duten eta hurrek arrazakeria barneraturik duten aztertzeke, irudietan oinarritutako galdetegi bat diseinatu da ikerketa honetarako. Galdetegi horri emandako erantzunen analisi kuantitatibo zein kualitatiboa egin da, parte-hartzaileen arrazei buruzko iruditegia modu objektibo batean ulertzea izanik tresna honen helburua.

5.3. Ikerketa-tresnak

Irudia, argazki bilduma

Atal honetan Maria Acasoren protokoaren arabera (2009, 76.or), Aranbizkarra ikas komunitatean ikasleek aurkitzen dituzten irudiak jaso dira argazkien bidez, eta hiru multzotan sailkatu dira irudi horiek dira (3. eranskina):

- a) Espazio espezifikoetan aurkitzen dituzten irudiak (ikasgela apaintzen duten irudiak, kartelak, elementu didaktikoak, altzairuen kokapena...).
- b) Espazio orokorrean jasotzen dituzten irudiak (hezkuntza-espazioaren arkitektura eta espazio komunen dekorazioa, hormairudiak, seinalektika....).
- c) Ikasleek klaseetan zehar ikusmenaren bidez jasotzen duten informazioa didaktikoa (diapositibak, aurkezpenak, ipuinak, testuliburuak...).

Behaketa taula

Irudien sailkapena egin ostean, hauen analisia egiteko behaketa taula bat diseinatu da, hau ere hiru atalez osatuta dagoena (4. eranskina):

- a) Irudiaren kokapena: Ereku fisikoa adieraziz, hau da, irudia klasean, eremu komunetan, erakusketa-espazioetan edota eraikinean topatu den. Bestalde, dokumentuetan, irneteren edota hormetan dauden irudietatik jasotzen dugun ikusizko irudikapenen, ikusizko informazioa aztertuko dugu. Hormen irudikapenei dagokionez, beste sailkapen bat gehitu da: irudiak iraunkorrak, ez iraunkorrak, itxiak, ez itxiak, markoztuak, markoztu gabeak, ikasleek eginak edota beste norbaitek egindako irudiak diren jakiteko (Acaso, 2009).
- b) Irudietan agertzen diren pertsonaien analisia: ikusizko mezu esplizituak eta inplizituak kontuan edukiz azterketa kualitatiboa egin da. Hau burutzeko ikusizko lengoaiaren

ezaugarri eta osagarri morfologikoak izan dira kontuan: irudiek bidaltzen duten koloreen bidezko mezuak, hirarkia, perspektiba eta eskalen bidezko mezuak, pertsonaien estetikaren bidezko mezuak, testuinguru edo hondoaren bidezko mezuak, eta ikusizko estereotipoen agerrera.

- c) Kultura-aniztasunaren trataera irudietan: Kultur eta arraza desberdinak islatzen diren aztertu da. Horretarako irudietan zein arraza nabarmentzen den behatu da, pertsonaien azala, janzkera eta beste ezaugarri batzuk kontuan hartuz.

Ikasleentzako galdetegia

Lehen Hezkuntzako lehenengo mailako ikasleei zuzendutako galdetegiaren diseinua eta analisia, GrAL honen helburuak jarraituz sortutakoa izan da. Inkesta bisuala sortzeko, lehenik eta behin hiru oinarrizko ataletan multzokatu ziren emandako irudiak (5. eranskina):

- 1) Pertsonai onen zerrenda: marrazki bizikdunetako 6 pertsonaien irudiak aurkezten zaizkie ikasleei, bakoitza letra batez identifikatuta, bi generoetakoak, denak gizakiak, eta arraza desberdinetakoak. Pertsonai onen zerrendan: A izeneko pertsonaia emakumezkoa da, argala eta amerikako indigena da. B izeneko pertsonaia gizonezkoa da, indartsua eta estatubatuarra da. C izeneko pertsonaia gizonezkoa da, argala eta arabiarra da. D izeneko pertsonaia gizonezkoa da, argala eta perutarra da. E izeneko pertsonaia, emakumezkoa, argala eta txinatarra da. F izeneko pertsonaia, emakumezkoa, argala eta frantsesa da.
- 2) Pertsonai maltzurren zerrenda: marrazki bizidunetako beste 6 pertsonaien irudiak aukeratu ziren, bakoitza letra batez identifikatuta, bi generoetakoak, denak gizakiak, eta arraza desberdinetakoak. Pertsonai maltzurren zerrendan: A izeneko pertsonaia emakumezkoa da, argala eta Alemaniarra. B izeneko pertsonaia gizonezkoa, argala eta Arabiarra da. C izeneko pertsonaia gizonezkoa, indartsua eta Frantsesa da. D izeneko pertsonaia, emakumezkoa, Estatubatuarra eta argala da. E izeneko pertsonaia, emakumezkoa, potoloa eta Estatubatuarra da. F izeneko pertsonaia, gizonezkoa, indartsua eta txinatarra da.
- 3) Pertsonai berdinen edo antzekoen zerrenda: marrazki biziduenen pertsonaiak aurkezten dira 5 bikotetan sailkatuta, kide bakoitza arraza batekoa izanik.

Galdetegia aurrera eramateko, ikasleek irudien zerrendak klaseko pantailan ikusgai dituzten bitartean emandako galderak erantzuten dituzte, banaka, eskuz eta modu anonimoan aldeztu aurretik prestatutako orrietan. Lehenengo ataletan, ikasleek arrazakeria barneraturik duten aztertzeko, lehenik eta behin pertsonai onen irudi sorta ikusgai duten bitartean, galdetegiaren lehenengo froga gauzatu behar dute: *ranking* bat sortzea da helburua, pertsonai onenetik maltzurreraino letrak jarritz. Eta berdina pertsonai maltzurren bilduma ikusgai duten bitartean, hau galdetegiaren bigarren galderan erantzunez. Hurrengo ataletan

ikasleen klase sozialen aurreiritziak aztertu nahi dira eta horretarako pertsonai onen bilduma ikusgai duten bitartean, galdetegiaren hirugarren galdera erantzun beharko dute: *ranking* bat egin pertsonai aberatsenetik txiroeneraino letrak jarritz. Eta berdina pertsonai maltzurren bilduma irudi sorta ikusgai duten bitartean, hau galdetegiaren laugarren galderan erantzunez. Azkenengo atalean, *Disney* klasikoen artean pertsonai berdina bi arraza desberdinetan aurkezten zaizkie, 5 bikotetan sailkatuta, eta bikote bakoitzeko gustukoak duten pertsonaia aukeratu beharko dute, hau azkenengo galderan erantzunez.

Datuen analisirako programak

Behaketa taulatik eta ikasleen galdetegitik jasotako erantzunak balio erlatiboetan, hau da ehunekoetan jaso dira. Horretarako, *Excel* eta *Googlek* eskainitako kalkulu-orria programa informatikoak erabili dira. Bi programa honen bitartez jasotako erantzunak grafikoetan jarri dira, datuen analisi kuantitatiborako.

6. EMAITZAK

Aurreko atalean azaldu den bezala, GrAL honetan metodo mistoa erabili da datuen analisia egiteko. Jarraian ikerketa-tresnen bitartez lorturiko emaitzak adierazi eta interpretatuko dira. Analisia bi atal desberdinetan banatuko da, alde batetik eskolako Ikusizko Curriculum Ezkutuaren inguruko behaketak deskribatuko dira, eta bestetik, ikus-kultura eta kultur-aniztasunaren arteko loturak identifikatuko dira, gai honi buruzko parte-hartzaileen iruditegia ikertuz galdetegiaren emaitzen bidez.

6.1- Eskolako Ikusizko Curriculum Ezkutuaren analisia

Guztira 72 argazki atera dira eskolako testuinguruan, eta aurreko atalean azaldu den bezala, horien analisia egin da Acasoren Ikusizko Curriculum Ezkutua analizatzeko protokoloa jarraituz (2009, 76.or). Protokolo horren arabera sailkatu dira ikerketa honetako argazkiak, hurrengo kopuruak lortuz:


Aztertutako eremua	Topatutako irudi kopurua	Aztertutako irudi kopurua
Gela	12 irudi	6 irudi
Arkitektura-eremua	11 irudi	5 irudi
Material didaktikoak	21 irudi	10 irudi
Album eta ipuinen ilustrazioak	28 irudi	14 irudi

1. Taula: Ikertutako argazkien sailkapena

Arrazakeri eta kulturartekotasunari buruzko mezuak identifikatzeko, eremu bakoitzeko irudien %50a aztertu da, pertsonaien analisi sakonagoa eginez.

Gelaren eremuari dagokionez, aztertutako 6 argazkietatik denak gelako horman itsatsita daude, markoztuak eta irakasleek egindako irudiak dira. Bestalde, irudi bat ez ezik, beste guztiak iraunkorrak dira, ikasturte desberdinetan mantetzen direnak. Iraunkorra ez den irudia bakarrean haur baten aurpegi atalak agertzen da eta iraunkorra ez izatearen arrazoia ikerketa bitartean taldearekin lantzen ari diren edukiei buruzko irudia izatea da, behin gaia bukatzerakoan, irakasleak irudia aldatuko du. Irudi ez iraunkorrean agertzen den pertsonaiaren honen azala argi eta garbi nabaritzen da, zuri kolorezkoa izanik. Ikertutako beste irudi batek otorduak zer eta zeintzuk diren azaltzen digu eta hemen baita ere soilik

Europa mendebaldeko arrazaren presentzia dago, guztiak arraza zurikoak izanik. Aztertu diren hurrengo bi argazkiak alfabetoa lantzeko irudiak dira, eta bertan agertzen diren bi pertsonak arraza zurikoak dira. Bestalde, gelako hormetan piktogramak itsatsita daude, ez dira oso handiak, baina behar bereziko ikasle batek uneoro erabiltzen ditu, eta hauek ere zuriak dira. Gelaren eremuari dagokionez, ikertutako azkenengo argazkiak hiru irudi bitartez lasaitasun gunean nola jokatu behar dugun azaltzen digu, horretarako hiru pertsona daude ongi eta gaizki dagoena azalduz. Oraingo honetan arrazakeri eta kulturartekotasunari dagokionez, hiru pertsonetatik batek ez du Europa mendebaldeko arraza, beste biek bai.




2. Irudia: Gelan jasotako irudien emaitzak

Gelan lortutako 6 irudi hauetan 10 pertsona agertzen dira eta horietatik %90a pertsonai zuriak dira eta %10a berriz pertsona arrazializatuak. Ilustrazioetan ez daude arraza identifikatzen ez diren pertsonaiak. Beraz, gelako esparruan ikertutako sei argazkietatik soilik argazki bateko pertsona batean ematen da arraza aniztasuna azalagandik.

Arkitektura-eremuari dagokionez ikertutako 5 argazki hauek iraunkorrak, markoztuak eta irakasleek eginak dira. 5 argazki horietako bitan hiru haur agertzen dira: lehenengo irudiarekin hurrek euskaraz hitz egin dezaten bultzarazi nahi dute eta bigarren irudian haurrak dekorazio gisa daude. Bi argazkiek arrazakeri eta kulturartekotasunari dagokionez, aniztasunaren presentzia dagoela esan daiteke: hiru haurretatik batek ez du Europa mendebaldeko arraza, beste biek bai. Espazio orokorretan aurkitu eta ikertu den beste irudi bat lehen laguntzen irudi bat da, larrialdi baten aurrean ikasleek zer egin behar duten jakiteko. Arrazakeri eta kulturartekotasunari dagokionez irudi hau etnozentrikoa dela esan dezakegu, izan ere, bertan agertzen diren pertsona guzti-guztiak arraza zurikoak dira eta egia esan, ez dira gutxi agertzen diren pertsonai kopurua. Bestalde, beste irudi batean, EUSLE (hizkuntza-murgiltze programa) gelara sartzeko argazki bat ikertu dugu eta bertan arraza aniztasuna agertzen da: pertsona zuria bat, beltz bat, txinatar bat eta hindua bat, hinduak bindi-a edukiz buruan. Argazkiaren behan errusieraz *egunon* idatzita dago, beraz irudi honetan arraza azalagandik, janzkeragatik zein hizkuntzarengatik nabaritzen da.

Arkitektura eremuari dagokionez ikertutako azkenengo irudian COVID-19 dela eta ikasleek bete behar duten arauak agertzen dira. Argazkia hiru irudi desberdinetan banatuta dago: alde batetik musukoa erabiltzeko esaten digun pertsona bat agertzen da, bestetik distantzia mantentzeko beste bi pertsona eta azkenik eskuak nola garbitu behar diren azaltzen diguten eskuak ditugu. Bi irudietan ez da arraza nabaritzen, txuri beltzean daudelako argazkiak, baina bestean azalagandik nabaritzen da arraza: agertzen den pertsona Europa mendebaldeko arraza ez duen pertsona bat izanik.



3. Irudia: Arkitektura eremuan jasotako emaitzak

Arkitektura-eremuan lortutako 5 irudi hauetan 26 pertsona agertzen dira eta horietatik %73,1a pertsonai zuriak dira eta %19,2a berriz pertsona arrazializatuak. Ilustrazioetan arraza identifikatzen ez diren pertsonaiak daude, hauek ehuneko txikiena izanki, %7,7a hain zuzen ere. Gelako esparruan ikertutako 26 pertsonetatik bost pertsonetan ematen da arraza aniztasuna azalagandik. Hori horrela, arraza aniztasunaren presentzia ematen dela esan genezake.


Material didaktikoei dagokienez honako datu hauek lortu dira:

Ikertutako 10 irudi	
Egunero hiztegia ikasi eta errepasatzeko txantiloak	5 argazki
Esku-liburua	4 argazki
Material gehigarria	Argazki bakarra

2. Taula: Material didaktikoen barruan ikertutako argazkiak

Hiztegia ikasi eta errepasatzeko 5 irudi horiek kartulina baten tamaina dute eta kartulina irudi desberdinez osatuta dago: kartulina bakoitzean 18 irudi. Argazki hauek ikertu ondoren


personai guztiak zuriak direla ikusi da: burua, besoa eta sabela zer diren erakusteko pertsona zuri bat agertzen da irudian, kirola egiten ari den pertsona zuria da, baita irakurtzen duen, idazten duen eta triste dagoen pertsona ere. Soilik Indiaa zer den azaltzeko agertzen da Europa mendebaldeko arraza ez duen pertsona, bakarra guztietatik. Irudi hauek etnozentrismoa izateaz gain, heterozentrismoa eta genero rola bultzatzen dituzte: bikote harreman bat zer den azaltzeko neska eta mutil bat jarriz, medikua neska bat izanik eta soilik zer den lodia izatea erakusteko, pertsona gizen baten irudia jarriz. Bestalde, erabiltzen duten esku liburu bateko 4 argazki ikertu dira. Esku liburuan zehar irudi aunitz daude, hauek pisu handi bat hartuz. Hurrek jasotzen dituzten irudi hauek arrazakeri eta kulturartekotasunari dagokionez, egokia dela esan daiteke: Europa mendebaldeko arraza ez duten pertsonaien presentzia dago. Esku liburuetan genero rola apurtzen saiatzen dira neskak ere futbolean eta baloiarekin jolastuz, generoen banaketa zainduta dago, baina presentzia parekoa izanik. Baina familia agertzen den irudi batean berriz ere hetero-zentrismoa goraiatzen da: familia osatzen duten kideek ama, aita eta bi seme alaba izanik. Azkenik material gehigarri bezala erabiltzen duten argazki bat ikertu da. Material hau jolasen katalogo bat da, orriaren behan neska bat agertzen da eta beste orri guztia arrosa, printzesak eta maitagarriak dira. Agertzen den neska zuria eta argala da, irudi honek genero rola eta etnozentrismoa bultzatuz.



4. Irudia: Material didaktikoetatik jasotako emaitzak

Material didaktikoan lortutako 10 irudi hauetan 45 pertsona agertzen dira eta horietatik %64,4a pertsonai zuriak dira eta %35,6a berriz pertsona arrazializatuak. Irudi hauetan ez daude arraza identifikatzen ez diren pertsonaiak. Gelan erabiltzen duten material didaktikoari dagokionez, soilik esku-liburuetan arraza aniztasunaren presentzia ematen dela ikusi da, erabiltzen duten beste material didaktiko guztiak mezu estereotipatu eta etnozentrikoak bidaliz.

Ikertutako album eta ipuinen ilustrazio hauek ikasleei egokitutako dira, bai hizkuntza mailan zein testuinguruari dagokionez: protagonista guztiak haurrak dira, eskolara doaz, haur baten eguneroko errutinak egiten dituzte, gurasoekin igarotzen dute denbora, ametsak zein frustrazioak dituzte... Album eta ipuinen ilustrazio guzti hauen azterketa egin ondoren, 4 album eta ipuinen ilustrazioetan ez ezik, beste 10 euskarrietako ilustrazioak orrialde bakoitzaren espazioa erdia baino gehiago hartzen dutela esan daiteke, testua berriz, espazio txikiagoarekin gelditzen da. Ilustrazio hauen arrazakeri eta kulturartekotasunari buruzko mezuak identifikatzeko azterketa egin ondoren, hurrengo datuak lortu dira: 14 ilustrazioetatik soilik 5 iruditan agertzen da arraza zuria ez den pertsonai bat eta horietatik bat *La familia de Souza* izeneko album-a da non Brasilko familia baten bizitza kontatzen diguten: nola bizi diren eta beraien ohituren berri dugu. Arraza aniztasuna ematen den 5 ipuin horietako beste bat *Aladdin* da, non pertsonai gaiztoek arabiar baten ezaugarri estereotipatuak erakusten duen: bizarra, sudur mirotza, azal iluna eta Aladdin eta Jasmine berriz, mendebaldeko ezaugarriak duten. Hori horrela, ikertutako 14 album eta ipuinen ilustrazioetatik soilik 3 (*El aire, Pirritx porrotx eta marimotots: korrika eta La tierra*) ipuin eta albumetan bermatzen da aniztasuna modu egoki batean: Europa mendebaldeko arraza ez duten pertsonak agertzen dira, protagonistak dira eta ez zaie munduko beste garrantzirik ematen, gaia ez da bakean bizitzeko denok berdinak izatea beharrezkoa ez dela ezta aniztasuna eta kultura-aniztasuna bizitzaren oinarria dela, pertsonaiak bertan daude beraien ametsekin eta egin beharrekin, ikertutako beste 9 album eta ipuinen ilustrazioetan bezala. Beste 9 album eta ipuinetan protagonistak arraza zuria dute eta baita atzeko planoan agertzen diren pertsonai guztiak ere. Arraza zurikoak izateaz gain, argalak dira eta genero rolen estereotipoetan erortzen dira: alde batetik neska ile luzearekin, mototsarekin eta soinekoarekin eta bestetik mutila ile motzarekin eta frakak erabiliz. Aipatutako 9 album eta ipuin guzti hauetan familiaren presentzia dago eta berriz ere familia tradizionalaren estereotipoan erortzen dira: aita, ama eta bi seme alaba, denak zuriak eta argalak.




5. Irudia: Album eta ipuinen ilustrazioetatik lortutako emaitzak.

Laburki esanda, album eta ipuinen ilustrazioei dagokionez lortutako 14 euskarri hauetan 66 pertsona baino gehiago agertzen dira eta horietatik %78,8a pertsonai zuriak dira eta %21,2a berriz pertsona arrazializatuak. Irudi hauetan ez daude arraza identifikatzen ez diren pertsonaiak. Beraz, 14 ilustrazioetatik soilik 5 iruditan agertzen da arraza zuria ez den pertsonai bat.

Eskola testuinguruan ateratako 35 argazki hauen analisia Acasoren Ikusizko Curriculum Ezkutua analizatzeko protokoloa (2009, 76.or) erabili ondoren, datu esanguratsuak lortu dira. Aztertutako lau eremuetan (gela, arkitektura-eremuak, material didaktikoak eta album eta ipuinen ilustrazioak) pertsonai zurien ehunekoa erdia baino handiagoa da.

- Gela: Ikertutako 6 irudietan agertzen diren 10 pertsonetatik soilik %10ak dira pertsona arrazializatuak.
- Arkitektura-eremuan: Ikertutako 5 irudietan agertzen diren 26 pertsonetatik soilik %19,2ak dira arrazializatuak.
- Material didaktikoetan: Ikertutako 10 irudietan agertzen diren 45 pertsonetatik soilik %35,6ak dira arrazializatuak.
- Album eta ipuinen ilustrazioetan: Ikertutako 14 irudietan agertzen diren 66 pertsonetatik soilik %21,2ak dira arrazializatuak.

Datu hauekin eremu guztietan arraza zuria presentzia gehien eta handiena duen arraza dela esan dezakegu eta baita ikasleek eskolan jasotzen dituzten erreferente bisualen ehuneko erdia baino gehiago zuriak direla ere. Ikertutako 35 irudietan guztira 147 pertsona agertzen dira eta horietatik 109 zuriak dira, hau da, irudietan agertzen diren pertsonen %74,1a, arraza zuria dute. Honekin bat, ikasleek eskolan dituzten zenbait irudi etnozentrismatik izateaz gain, heterozentrismoa eta genero rola bultzatzen dituztela ikusi da. Arnasgune bezala, esku-liburuak daude, urteen poderioz aldatzen joan direnak eta urtero berritzen dituztenak. Esku-liburu hauetan emakumeen eta gizonen arteko presentzia parekoa da, genero rola gainditzen dituzte eta arraza aniztasunaren presentzia ematen da.



6. Irudia: Datu orokorren emaitzak.

6.2- Lehen Hezkuntzako ikasleen iruditegiaren analisia

Bigarren atal honetan hurrei zuzendutako galdetegiaren bitartez jasotako iritziak aztertuko dira. Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendutako galdetegiaren diseinua eta analisia, GrAL honen helburuak jarraituz sortutakoa izan da.

Metodoaren atalean azaldu den bezala, LHko 1. mailako ikasleek arrazakeria barneraturik duten aztertzeko, irudietan oinarritutako galdetegi bat diseinatu da. Ikasleei egindako galdeketaren lehen atalari dagokionez, umeei pertsonai onen irudi bilduma gelako pantailan ikusgai zuten bitartean, lehenengo galdera erantzun zuten: pertsonai onenetik maltzurretarainoko *ranking* bat osatuz.

Onen bildumako pertsonai onena eta maltzurrena		
Pertsonaiak	Pertsonai onena	Pertsonai maltzurrena
A (emakumezkoa eta amerikako indigena)	%13,3	%20,0
B (gizonezkoa eta estatubatuarra)	%26,7	%6,7
C (gizonezkoa eta arabiarra)	%0	%20,0
D (gizkonezkoa eta perutarra)	%0	%33,3
E (emakumezkoa eta txinatarra)	%20,0	%13,3

F (emakumezkoa eta frantsesa)	%40,0	%6,7
-------------------------------	-------	------

3. Taula: Onen bildumako pertsonai onen eta maltzurren ehunekoak

Boto gehien jaso dituzten lehenengo bi pertsonai onenak arraza zurikoak dira, Europa mendebaldeko arraza ez diren bi pertsonaiak (arabiarra eta perutarra) boto bat bera ere ez jasoz. Ildo berdinetik jarraituz, nahiz eta pertsonai guztiak onak izan, pertsonai maltzurrenak Europa mendebaldeko arraza ez duten bi pertsonaiak izan dira, pertsonai arabiarra eta perutarra hain zuzen ere. Lortutako datu hauetatik abiatuta, honako hau da emaitza esanguratsuena: ikasleen ia erdiak F pertsonaia (emakume zuriak) pertsonai onena dela adierazi dute, soilik %6,7ak pertsonai hau maltzurra dela esanez.

Hori horrela, galdera honen bitartez arrazakeria antzematen dela aipatu beharra dago, izan ere, arraza zuria ona denarekin lotzen dute: Europa mendebaldeko arraza ez duten pertsonaiak maltzurrenak direla erantzun dute eta aldiz Europa mendebaldeko arraza duten bi pertsonaiak onenak direla adierazi dute.

Parte-hartzaileek pertsonai maltzurren irudi bilduma gelako pantailan ikusgai zuten bitartean, bigarren galdera erantzun zuten pertsonai onenetik maltzurretarainoko *ranking* bat eginez.

Maltzurren bildumako pertsonai onena eta maltzurrena		
Pertsonaiak	Pertsonai onena	Pertsonai maltzurrena
A (emakumezkoa eta alemaniarra)	%33,3	%6,7
B (gizonezkoa eta arabiarra)	%0	%20,0
C (gizonezkoa eta frantsesa)	%26,7	%6,7
D (emakumezkoa eta estatubatuarra)	%20,0	%0
E (emakumezkoa eta estatubatuarra)	%13,3	%13,3
F (gizonezkoa eta txinatarra)	%6,7	%53,3

4. Taula: Maltzurren bildumako pertsonai onen eta maltzurren ehunekoak

Emaitza hauek irakurriz ikasleen ustez pertsonai guztietatik onena Europa mendebaldeko arraza duen pertsonaia dela esan dezakegu. Datu nabarmenenak pertsonai maltzurrenarekin lotu dira: nahiz eta irudi bilduman agertzen diren pertsonai guztiak filmetan pertsonai maltzurren papera bete, ikasleen erdiak baino gehiagok pertsonai maltzurrena F pertsonaia (gizon txinatarra) dela erantzun zuten, D izeneko emakumezko pertsonai estatubatuar zuriak boto bat bera ere ez jasoz.

Lortutako datu hauetatik, bigarren galderaren emaitzetan ere arrazakeria antzematen dela esan dezakegu. Hau garbi ikus dezakegu bildumako Europa mendebaldeko arraza ez duten bi pertsonai bakarrak, B pertsonai (gizon arabiarra) eta F pertsonaia (gizon txinatarra), pertsonai onen galderan boto gutxien jaso dituztenean eta ildo berdinetik jarraituz, ikasleen ustez bi hauek pertsonai maltzurrenak direla erantzun dutenean. Ikasleek pertsonai onena Europa mendebaldeko arraza duen pertsona dela eta pertsonai maltzurrena aldiz Europa mendebaldeko arraza ez duena adieraziz, arrazismoa antzematen dela esan dezakegu. Arraza zuria ona denarekin lotzen dutelako.

Jarraian klase sozialen aurreiritziei buruzko datuak izateko, galdetegiaren bigarren atala diseinatu da. Galdeketaren bigarren atalari dagokionez, umeei pertsonai onen irudi bilduma gelako pantailan ikusgai zuten bitartean, hirugarren galdera erantzun zuten: pertsonai aberatsenetik txiroenera *ranking* bat egin.

Onen bildumako pertsonai aberatsena eta txiroena		
Pertsonaiak	Pertsonai aberatsena	Pertsonai txiroena
A (emakumezkoa eta amerikako indigena)	%6,7	%20,0
B (gizonezkoa eta estatubatuarra)	%26,7	%13,3
C (gizonezkoa eta arabiarra)	%6,7	%20,0
D (gizkonezkoa eta perutarra)	%0	%26,7
E (emakumezkoa eta txinatarra)	%13,3	%13,3
F (emakumezkoa eta frantsesa)	%46,7	%6,7

5. Taula: Onen bildumako pertsonai aberatsena eta txiroena ehunekoetan

Emitza hauek aztertu ondoren, honako datu hauek lortu dira: Europa mendebaldeko arraza duten bi pertsonai bakarrak pertsonai aberatsenak direla erantzun dute. Ikasleen %46,7ak F izeneko printzesa zuri frantsesak pertsonai aberatsena dela aipatu dute eta bigarren aberatsena gizon zuri estatubatuarra. Pertsonai txiroen artean berriz, ez dira hain datu esanguratsuak lortu, nahiko parekatuta egon dira erantzunak, hala ere, A, C eta D, pertsonaiak (amerikako indigenak, arabiarak eta perutarak) boto gehien jaso dituzten pertsonaiak izan dira. Hori horrela, ikasleak Europa mendebaldeko bi pertsonai bakarrak aberatsenak direla adierazterakoan klase sozialen aurreiritzietan erortzen dira, arraza zuria arrakastarekin lotuz.

Ildo berdina jarraituz, oraingoan pertsonai maltzurren irudi bilduma gelako pantailan ikusgai zuten bitartean, laugarren galdera erantzun zuten: pertsonai aberatsenetik txiroenera *ranking* bat egin.

Maltzurren bildumako pertsonai aberatsena eta txiroena		
Pertsonaiak	Pertsonai aberatsena	Pertsonai txiroena
A (emakumezkoa eta alemaniarra)	%6,7	%20,0
B (gizonezkoa eta arabiarra)	%6,7	%13,3
C (gizonezkoa eta frantsesa)	%13,3	%20,0
D (emakumezkoa eta estatubatuarra)	%33,3	%0
E (emakumezkoa eta estatubatuarra)	%40,0	%13,3
F (gizonezkoa eta txinatarra)	%0	%33,3

6. Taula: Maltzurren bildumako pertsonai aberatsena eta txiroena ehunekoetan

Hori horrela, inork ez du erantzun F pertsonaia (gizon txinatarra) aberatsena dela, baina bai pertsonai guztietatik txiroena dela. Halaber, inork ez du erantzun D pertsonaia (emakume estatubatuarra) txiroena dela, baina bai aberatsena E pertsonaia dela (emakume estatubatuarra). Emitza hauek interpretatuz, ikasleek berriz ere klase sozialei buruzko aurreiritziak dituztela antzematen da, beste behin ere arraza zuria arrakastarekin lotuz.

Azkenengo atalean, Disney klasikoen pertsonaien artean pertsonai berdina bi arraza desberdinetan aurkeztu zitzairen. Irudi sorta baten bitartez 5 bikote erakutsi eta bikote bakoitzeko gustukoak zuten pertsonaia aukeratu behar izan zuten, hau azkenengo galderan erantzunez.

Bikote bakoitzeko gustukoak duten pertsonaia aukeratu		
Bikoteak	Europa mendebaldeko arraza duen pertsonaia	Europa mendebaldeko arraza ez duen pertsonaia
Lehenengo bikotea	%66,7	%33,3
Bigarren bikotea	%66,7	%33,3
Hirugarren bikotea	%66,7	%33,3
Laugarren bikotea	%73,3	%26,7
Bostgarren bikotea	%80	%20

7. Taula: Bikote bakoitzeko pertsonai gustukoena ehunekoetan

Beraz, galdetegi itxuraz soil eta arrunt batez bitartez irudi sorta guztietan ikasleen erdiak baino gehiagok Europa mendebaldeko arraza duten pertsonaia ezaugarri positiboekin lotzen dituzte (onak, aberatsak), eta arrazializatutako pertsonaia ordea kontzeptu negatiboekin erlazionatzen dituzte (maltzukarrak eta txiroak). Ikasleen erantzun guztiak ikertu ondoren, emaitzetan arrazakeria antzematen dela esan genezake, baita ikasleek klase sozialen aurreiritzietan erortzen direla ere. Emaitza hauetatik hurrek eskolan eta ikus-entzunezkoetan jasotzen dituzten mezuek kultura zuri bat bultzatzen dutela ulertu dezakegu, zeinaren mendebaldeko ezaugarriak diren erreferente egoki bakarrak.

7. ONDORIOAK

Ikerketa honen helburua Lehen Hezkuntzako (LH) material didaktikoen ilustrazioak pentsamendu etnozentrikoa edo kulturartekotasuna sustatzen duten aztertzea zen, hauek LHko ikasleengan izan dezaketen eragina ikertuz. Horretarako alde batetik, ikastetxe bateko ikusizko curriculum ezkutua aztertu eta material didaktiko gisa erabiltzen diren irudien analisi formala egin da, eta bestetik, irudi hauek 1. mailako gela baten ikasleen iruditegiarekin bat datorren aztertu da. Behin analisia eginda, hasiera batean proposatutako helburu orokor eta berriazko hauek lortu direla esan genezake, orain azalduko diren datu esanguratsuak lortu baitira. Aranzizkarra ikas-komunitateko curriculum ezkutua azterketa egin ondoren, eskolako eremu guztietan arraza zuria presentzia gehien eta handiena duen etnia dela esan genezake eta baita ikasleek eskolan jasotzen dituzten erreferente bisualen ehuneko erdia baino gehiago zuriak direla ere, %74,1a hain zuzen ere. Bestalde, ikasleen galdetegitik zera ondoriozta genezake: emaitzetan arrazakeria antzematen da, baita ikasleek klase sozialen aurreiritzietan erortzen direla ere. Ikasleek arraza zuria arrakastarekin eta ona denarekin lotzean, eskolan eta ikus-entzunezkoetan jasotzen dituzten mezuek kultura zuri bat bultzatzen dutela ulertu dezakegu, zeinaren mendebaldeko ezaugarriak diren erreferente egoki bakarrak. Datu hauekin ikusizko curriculum ezkutua neutroa ez dela ondoriozta daiteke, non, arrazakeri eta kulturartekotasunari dagokionez, irudi estereotipatuak igortzen diren.

Lortutako emaitzekin ikusizko curriculum ezkutuak haurren iruditegian eta identitatean eragin zuzena duela esan genezake, eskolako eremu guztietan haurrek arraza eta kultura aniztasuna bermatzen duten erreferente bisualen falta dago eta horrela, estereotipoak garatu dituzte, kultura, arraza edo gizarte-klase desberdinei buruzko ezagutza egokirik ez dituztelako. Ildo berdinetik jarraituz, eskolan jasotako erreferente bisualetan Europa mendebaldeko arraza ez duten pertsonak ez dira eguneroko jardueretan edo egunerokotasunean espazioak partekatzen agertzen eta argi izan behar dugu arrazakeria irudikapen xenofoboaren presentzian zein absentsian agertzen dela. Honek, zalantzarik gabe, haurren iruditegian eragina du, mendebaldeko ezaugarriak erreferente egoki bakarrak direla barneratuz. Haurren ezaugarri berak dituzten pertsonaiek inoiz rol jakin batzuk betetzen ez badituzte, ezingo dira leku horretan jarri, ezingo dute inoiz sentitu pertsona horiek sentitzen dutena, haren arazoak eta nahiak ulertu, eta are gutxiago imitatu.

Ikerketa honen emaitzen arabera, GrALaren alderdi enpirikoarekin hasi baino lehen aurreikusi ziren hipotesiak bete direla esan dezakegu. Hasteko, gelan aurkitzen ditugun ilustrazio didaktiko gehienek, kultura-aniztasunarekiko, ikastetxean aurkitzen dugun errealitatea islatzen ez dutela baieztatu dezakegu. Eskolan erabiltzen diren ilustrazio

didaktikoetan agertzen diren pertsonen %74,1ak Europa mendebaldeko arraza dute, beraz arraza gainartzailea dela argi ikus genezake. Bestalde, ipuin, album eta komikietan arraza zuriko etnozentrismoa guztiz normalizatua dagoela ikusi da: alde handia dago ipuinak hitzez kontatu nahi duenaren eta hurrek ilustrazioen bidez hautematen dutenaren artean, hots, testuetan ez da zehazten pertsonaia bakoitzak zer egiten duen, nola janzten den edo zer ezaugarri etniko dituen, baina ilustrazioetan ongi zehaztuta daude xehetasun guzti hauek. Aniztasuna islatu beharrean, ikertutako album eta ipuinen ilustrazioek estereotipoetan oinarrituta jarraitzen dute, klixe jakin batzuk erreproduzitzeko joera bultzatuz. Era berean, eskolan jasotzen dituzten erreferente bisualak hurren iruditegian eragina dutela ikusi dugu, izan ere, ikasleen galdetegia arrazakeriaz eta klase sozialen aurreiritziz beteta daude. Hau, eskolan eta ikus-entzunezkoek kultura zuri bat bultzatzearen arrazoia da.

Marko teorikoan azaldu den bezala, Gasteiz da ikasle etorkinen ehuneko handiena duena, Lehen Hezkuntzako matrikulak %25ekoa eta DBHn %20koa izanik. Behatutako eskolan gaur egun ia 400 ikasle daude bertan eta munduko 28 herrialdeetako familiak daude. Hori horrela, ikerketa honekin, eskolako ikusizko curriculumak ikasleen errealtatearekin bat ez datorrela ikusi da. Bestalde, EAEn eta baita Aranbizkarra hezkuntza komunitatean, irakasle gehiengoak zuriak dira, eta etnozentrismoa nabaritzen da material didaktikoak prestatzerakoan edo eskola apaintzerakoan.

Hala ere, gaur egungo gizartearen beharrekin batera, esku-liburuetako ereduak aldatzen joan dira. Urteen poderioz berritzen dituzte eta orain gelan erabiltzen ari diren esku-liburuak berriak dira, gizarteko eta gelako testuinguruari egokitzen direnak. Aztertutako esku-liburuan emakumeen eta gizonen arteko presentzia parekoa da, genero rola deseraikitzen dituzte eta arraza aniztasunaren presentzia dago. Erabiltzen duten beste material didaktikoa berriz, ez da berritzen, urtero berdina erabiltzen da. Hori horrela, aniztasuna zaintzen duten material berria egiten ari direla ikusi da, egungo errealtate ezberdinei ikusgaitasuna emanez.

Ikerketa honetan irudiak aztertu eta analizatu dira eta lan honek hezkuntza sistemari ekarpen bat eskeintzen dio: ikasgelan aurkitzen ditugun irudien behaketa eta hausnarketa autokritikoa egitea beharrezkoa da. Irudien eta ikusizko kulturak hurren iruditegian duen boterea ikusi da eta hauek ongi kudeatzea ezinbestekoa da, azken finean kaltetuenak ikasleak dira eta hauen zaintza erdigunean jartzea funtsezkoa da. Ikerketa honekin Irakaskuntza-prozesuan erabiltzen diren bideo, pelikula eta material didaktikoetan normalizatuta ditugun irudiak agertzen direla aztertu da eta hauek zalantzan jarri gabe erabiltzen dira. Gaur egungo eskolen oinarrian aniztasuna dagoela jakinda, funtsezkoa da eskolek beren ingurunean aniztasunaren irudikapen egokia eta bidezkoa sustatzea.

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lan hau ixteko, ikerketa-prozesuan zehar topatu diren zailtasunez hausnartuko da, muga mota ezberdinetan eta hobekuntza proposamenak identifikatzeko helburuarekin. Hasteko, mugei dagokionez, ikerketa tresnak daude: lehen aldiz diseinatutako baitira. GrAL-a horrelako lan enpirikoa egiten ikasteko balio izan du, hala ere ikerketa tresna hauek praktikan frogatzean zailtasun eta akats batzuk aurkitu dira, aurrera begira hobetu daitezkeenak: alde batetik sortutako galdetegia haurrek erantzutea ikerketa honetan zehar topatu den zailtasunetako bat izan da, parte-hartzaile batzuek galdetegia erantzuteko hainbat arazo izan baitute. Galdetegiaren parte-hartzaileak Lehen Hezkuntzako lehen mailako ikasleak izan dira eta behin eta berriz errepikatu behar izan zaie galdera bakoitza nola erantzun behar zuten: ez zekiten zer zen *ranking* bat ezta non kokatu pertsonai bakoitzaren letra. Ordu beten aurreikusita zegoen galdetegia, bi orduetan egin behar izan zen. Ildo beretik, galdetegiaren diseinua egiterako orduan hainbat zailtasun izan ziren, hasiera batean ikasle bakoitzak bere galdetegia argazki guztiekin edukitzea pentsatu zen, hau da, ikasle bakoitzeko galdetegi bat eta 22 argazki eta ondoren hiru irudi bilduma egitea erabaki zen. Azkenik, eskolan aurki dezaketen irudi guztiak jaso ziren, baina guztiak analizatzea ezinezkoa izan zen, Practicum zein GrAL-aren epeak zehaztuta baitaude eta horrek lan-denbora mugatzen du.

Denbora eta lagina mugatua zegoenez, ikerketa honi jarraipena eta sakontasuna eman ahal izateko, GrAL honetan sortutako behaketa taula bereziki GrAL honentzat diseinatu izan denez, eskola mota desberdinetan aurrera eramatea aukera bat da, horrela eskola desberdinetan eta beste herri batzuetako eskoletan dauden ilustrazioek pentsamendu etnozentrikoa edo kulturartekotasuna sustatzen duten aztertuko da, emaitza orokorrak lortuz. Ikasleen galdetegia ere gai honentzat diseinatu izan da, beraz ikasgela gehiagotan aurrera eramatea aukera bat da, Lehen Hezkuntzako ikasleriaren emaitza gehiago lortuz, iruditegi orokor bat lortu ahal izateko.

Bukatzeko, lan honekin jarraitzeko aukera egongo balitz, oraingoan irakasleengan jarriko nuen fokua. Hezkuntzarik gabe ez dago arrazakeriarik gabeko etorkizunik, eta ikasgeletako irakasle kontzienterik gabe, borroka galdua dugu. Hori horrela, formakuntza batzuen bidez irakasleak eskolan erabiltzen dituzten irudien eta hauen irismenaren inguruan hausnartzea beharrezkoa da. Horrela, haurrei bidaltzen zaien irudiak analizatzeko eta kritikotasunez aztertzeko gai izango dira irakasleak. Modu berean, ikasgelan aurkitzen ditugun komunitate arrazializatuak ordezkatzeko dituzten erreferenteen beharra ikusita, irakasleei zuzendutako kulturartekotasuna zaintzen dituzten ikus-entzunezkoen zerrenda osatu bat egitea interesgarria izango zen, hauek eskolan txertatzeko.

9. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Acaso, M. (2009). La educación artística no son manualidades. Madrid: Catarata.
- Acaso, M. (2009). La Educación Artística no son manualidades. Nuevas prácticas en la enseñanza de las artes y la cultura visual. Catarata.
- Acaso M. y Nuere S. (2005). El curriculum oculto visual: aprender a obedecer a través de la imagen. *Arte, Individuo y Sociedad*, 17, 207-220.
- Azumendi, E. (3 de febrero 2018). La escuela pública es la que asume la inmigración, pero sin medios. *Eldiarioa.es*.
https://www.eldiario.es/euskadi/euskadi/escuela-publica-asume-inmigracion-medios_1_2809174.html
- Arellano Yanguas, V. (2008). El álbum ilustrado: un género en alza. *Literaturas.com*. Diciembre 2008.
- Aveiga, V., Ostaiza, J., Macías, X., & Macías, M. (2018). Uso de la tecnología: entretenimiento o adicción. *Caribeña de Ciencias Sociales*.
- Berasategi, N. (2014). Hizkuntza eta kultura aniztasuna Bilboko eskoletan. Euskararen erabileran eta euskal kulturaren praktikan eragiten duten faktoreak. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 92-93.
- Blázquez, C. (2023). Disney y su influencia en el comportamiento y la toma de decisiones de las personas.
- Bosch Andreu, E. (2015). Estudio del álbum sin palabras. [Doktorego tesia]. Universitat de Barcelona. Hemen eskuragarri: <https://www.tdx.cat/handle/10803/297430#page=1>
- Casablanco, S. (2000). En cuanto a las imágenes en Textos Escolares.: Función, relevancia y características desde una perspectiva didáctica. In *Hacia el Tercer Milenio. Cambio educativo y educación para el cambio: XII Congreso Nacional y I Iberoamericano de Pedagogía* (pp. 303-304). Sociedad Española de Pedagogía.
- Castrillón, J. S., & Jiménez, E. (2018). El papel de los estereotipos en la publicidad.
- Cisterna, F. (2002). Currículum oculto: Los mensajes no visibles del conocimiento educativo. *REXE: Revista de estudios y experiencias en educación*, 41-56, 1(1).
- Digón, P., (2006). El caduco mundo de Disney: propuesta de análisis crítico en la escuela. *Comunicar*, (26), 163-169.
- Domínguez, Y. (2021). *Maldito estereotipo*. EDICIONES B.
- EFE. (2019). Casi el 23% de los alumnos de la escuela pública es de origen

extranjero.(2019). El Mundo. Honako webgune honetatik berreskuratua:
<https://www.elmundo.es/pais-vasco/2019/03/25/5c992120fdddf60698b462d.html>

Elkarrekin. (2023, 14 martxoa). Ongi etorri eskolara. <https://www.ongietorrieskolara.org/>

EUSTAT. (d.g.). Esukal AEko biztanleria, lurralde eremuaren, eta naziotasunaren arabera herrialde-taldearen arabera. 2001-2022.
https://eu.eustat.eus/bankupx/pxweb/eu/DB/-/PX_010154_cepv1_ep18.px/

Gento, P. M. (2017). Estereotipos de género en cuentos infantiles tradicionales. In *IX Congreso Virtual sobre Historia de las Mujeres (15 al 31 de octubre de 2017): comunicaciones* (pp. 461-490). Archivo Histórico Diocesano de Jaén.

Mérigo, G. (2019). ¿Qué le enseñan a los niños y niñas las películas de Disney y qué tanto les puede llegar a afectar?

Heras Sanz, E. (2017). El álbum ilustrado como herramienta docente y potenciadora de la creatividad en Educación Infantil. [Grado Amaierako Lana]. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilboko irakasleen unibertsitate eskola.

Hik hasi. (2013). Aniztasunaren kudeaketa. Arrakastarako giltza zentroak berak dauka.

Hik Hasi Euskal Heziketarako egitasmoa.
<http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20131201/aniztasunaren-kudeaketa-arrakastarako-giltza-zentroak-berak-dauka>

J.E.D.I. (2022, 13 junio). J.E.D.I. - Aniztasunean eta Inklusioan oinarritutako Hezkuntzaren aldeko Gazteak. <https://retojedi.org/eus/>

Lete, I. U. (2022, 19 febrero). *Ikasle etorkinak eta eskola, elkarrekin hazten*. Berria.
<https://www.berria.eus/paperekoa/2017/002/001/2022-02-19/ikasle-etorkinak-eta-eskola-elka-rekin-hazten.htm>

Martínez, A. C., & Gómez, P. R. (2019). Arte, cuerpo e identidad para una investigación-acción participante con estudiantes afrodescendientes. *Arteterapia*, 14, 113.

Sánchez, I (2018). La multiculturalidad en los dibujos animados: una representación escasa y estereotipada. In B, Puebla., R, Rubira y S, Magro. *Procesos de comunicación en entornos educativos* (pp. 37-41). Egregius.

Pérez, D., Pérez, A.I., & Sánchez, R.(2013). El cuento como recurso educativo. 3c *Empresa: investigación y pensamiento crítico*, 2(4), 4.

Monleón, V. (2018). "El malo de la película" Estudio de las principales figuras malvadas en

la colección cinematográfica clásicos Disney.

Orue, A. J. I. (2019, 7 marzo). *Migrazioa gaur egungo erronka globala. Euskal diasporaren kasua elkartasun eragile eskolan.*

<https://addi.ehu.es/handle/10810/31927?locale-attribute=es>

Posner, G. J. (2005). *Análisis del currículo*. (3ªed.). MCGRAW-HILL

Quequi. (27 de Julio de 2016). ENAJENA LA TECNOLOGÍA A LOS MENORES. *Quequi*.

<https://www.periodicoquequi.com/enajena-la-tecnologia-los-menores/>

Rajadell, N., Pujol, M. A., & Violant, V. (2005). Los dibujos animados como recurso de transmisión de los valores educativos y culturales. *Comunicar*, 13(25).

Rebollo, M.J. (2006). El currículum en una escuela coeducativa. Educación de mujeres y niñas en Iberoamérica. I Jornada de Cooperación educativa sobre género. 151-175 [Disponible en: (30/03/2015)

http://www.oei.es/genero/documentos/Educacion_de_mujeres.pdf]

Rodríguez, M. D. C. H., & López, J. P. (2005). La calidad en los dibujos animados en televisión. *Comunicar: Revista científica iberoamericana de comunicación y educación*, (25), 87.

Ruiz Campos, A. M. (2005). Cuatro caperucitas: cuánto cuenta un cuento: el problema de la vida de la literatura infantil. *Escuela abierta: revista de investigación educativa*.

Salazar Zeballos, F. T., & Chang Arauz, K. S. (2017). *El uso excesivo de la tecnología y su influencia en el desarrollo cognitivo de los niños de 4 a 5 años de la unidad educativa Sir Thomas More del cantón Daule en el periodo lectivo 2017-2018* (Bachelor's thesis, Guayaquil: ULVR, 2017.).

STEILAS eta IKUSBIDE. (2021). Jatorri migratzailea duten ikasleen eskola segregazioa Gasteizen. <https://steilas.eus/wp-content/uploads/2022/03/Segregazioa-.pdf>

Zapata-Barrero, R. (2018). Aula Intercultural. El portal de la educación intercultural.

10. ENASKINAK

1. ERANSKINA: Marrazki bizidunen argazkiak

Steven Universe:



Pequeño Bill:



Super Why:



She-Ra:



Motown Magic:



The proud family:



El mundo de Craig:



CoComelón:



Big blue:



Avatar: La leyenda de Aang:



2. ERANSKINA: Album eta ipuinen argazkiak

Mendi bat jolastokian (Ana Oncina, 2019):



Jatorrak gara (Sophie Beer, 2021):



Andereño Vicky friki samarra da (Dan Gutman, 2018):



Maitasuna eta familia (Sophie Beer, 2021):




Futboleroak: Sorgindutako gazteluaren misterioa (Roberto Santiago, 2017):



Maria eta amlaren mundu harrigarria (Betzaida Urtaza, 2021):




Bonitas (Stacy McAnulty, 2018):



Gorputz guztiak dira ederrak (Beth Cox, 2023):



Amigas (Lauren Ace eta Jenny Loulie, 2020):



La preocupación de Lucía (Tom Percival, 2018):



3. ERANSKINA: Acasoren protokoa (2009, 76or)

PROTOCOLO DE ANÁLISIS DEL CURRÍCULUM OCULTO VISUAL

Significado del lenguaje visual a través de:

1. Color
2. Luz
3. Materiales
4. Composición
5. Use of space



Espacios generales

- Clases (clases teóricas, talleres, seminarios, etc.)
- Zonas comunes (pasillos, cafeterías, biblioteca, zonas de descanso, WC, jardines, ascensores)
- Espacios expositivos
- Oficinas y despachos staff



Información visual de representaciones visuales

- Representaciones visuales en paredes
 - Permanentes no permanentes
 - Cerradas no cerradas
 - Enmarcadas o no enmarcadas
 - Hechas por los alumnos, por grandes artistas o por antiguos alumnos
 - En papel o en lienzo
- Representaciones visuales en documentos (folletos, etc.)
- Representaciones visuales en Internet

Información visual de productos visuales reales

- Continente
 - Arquitectura exterior
 - Arquitectura interior
- Contenido
 - Mobiliario: mesas, sillas, plantas, etc.
 - Trabajadores (profesores y otros miembros del contexto educativo)
 - Tecnología

4. ERANSKINA: Behaketa taularen eredia

IRUDIAREN KODEA: (Argazkiaren zenbakia)

1. IRUDIEN KOKAPENA

Espazioa	Klasean (klase teorikoak, tailerrak..)	Eremu komunetan (pasiloak, igolgailuak...)	Erakusketa-espazioetan	Bulegoetan
Ikusizko irudikapenen ikusizko informazioa	Dokumentuetan (liburuxkak, etab.)	Interneten	Hormetan	
Hormetan	Iraunkorrak	Itxiak	Markoztatuta	Ikasleek eginak
	Ez iraunkorrak	Ez itxiak	Markoztatut gabe	Beste norbaitek eginak

2. PERTSONAIEN ANALISIA: IKUSIZKO MEZUEN ANALISIA (MEZU ESPLIZITU ETA INPLIZITUAK)

Koloreen bidezko mezuak	
Hierarkia, perspektiba eta eskalaren bidezko mezuak	
Pertsonaien estetikaren bidezko mezuak (azala, janzkera, keinuak, poseak...)	
Testuinguru edo hondoaren bidezko mezuak	
Ikusizko estereotipoen agerrera (genero rolak, etnozentrismoa, heterozentrismoa....)	

3. KULTURARTEKOTASUNARI BURUZKO IKUSIZKO ANALISIA

Arraza nabaritzen da?

EZ	
----	--

BAI	Azalagatik	Janzkeragatik	Beste bat (idatzi)
-----	------------	---------------	--------------------

5. ERANSKINA: Ikasleentzako galdetegia

Hiru argazki bildumak:

Pertsonai onen bilduma:



Pertsonai maltzurren bilduma:



Pertsonai berdinen edo antzekoen bilduma:



A

B



C



D



E



F



G



H



I



J

Ikasleek erantzun beharreko galdetegia:

1- Ranking bat egin pertsonai onenetatik pertsonai maltzurretaraino

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

2- Ranking bat egin pertsonai onenetatik pertsonai maltzurretaraino

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

3- Ranking bat egin pertsonai aberatsenetik pertsonai probreeneraino

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

4- Ranking bat egin pertsonai aberatsenetik pertsonai probreeneraino

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5
- 6

5- Bi irudien artean borobildu gehien gustatzen zaizuna

- | | |
|---|---|
| A | B |
| C | D |
| E | F |
| G | H |
| I | J |